

**ZEIN LEKU DU KOMUNITATE GORRAK GIZARTEAREN ETA
HEZKUNTZAREN BAITAN?
ANTZERKIAREN BIDEZ ERANTZUN BILA
*GRADU AMAIERAKO LANA***

EGILEA: Garcia Jimenez, Amaia
ZUZENDARIA: Sainz de la Maza Alday, Eider

2022

Laburpena: Lan honetan, komunitate gorra bere egunerokotasunean jasaten dituen zapalketak behatu ez ezik, haur gorrek hezkuntza sisteman duten lekuaren kalitatea aztertzen da. Horretarako, bizipen pertsonal errealak erabili dira eta Antzerki Foro bat sortu da pertsona gorren egoeraren inguruan hausnartzeko zein jasandako oztopo horiei irtenbideak bilatzeko eztabaidaren eta antzezpenaren bidez.

Hau guztia gauzatu ahal izateko, Zapalduen Antzerkian oinarritutako bi antzerki tailer egin dira, heldu zein haur eta nerabe gorrekin. Honez gain, hainbat profesional eta komunitate gorren partaide elkarrizketatu dira. Zehazki, arlo desberdinetan lan egiten duten hiru irakasle eta pertsona gor bat.

Esku-hartzearen ondorioetan azaldu bezala, pertsona gorren oztopo nagusia komunikazioan datza, horrek informazioa eskuratzeko aukera eza edota harremantzeko zailtasunak ekartzen dituelarik. Traba horiek testuinguru desberdinetan eragiten dute, besteak beste, egunerokotasunean, aisialdian, osasungintzan, hezkuntzan, etab. Haur gorren hezkuntza haur horren beharretara moldatu beharra dago, izan ere, haur gor bakoitzaren gaitasunak oso desberdinak eta anitzak dira eta beraz, haur bakoitzak behar dituen baliabideak oso aldakorak dira.

Hitz gakoak: Zapalduen Antzerkia, Antzerki Foroa, komunitate gorra, hezkuntza, haur gorra.

Resumen: En este trabajo por una lado se observan las opresiones que sufre la comunidad sorda en su día a día, pero también se analiza la calidad del lugar de los niños sordos en el sistema educativo. Para ello se han utilizado vivencias personales reales y se ha creado un Teatro Foro donde reflexionar sobre la situación de las personas sordas y proponer soluciones a estos obstáculos sufridos a través del debate y la representación.

Para poder llevar a cabo todo esto, se han realizado dos talleres de teatro basados en el Teatro del Oprimido, tanto con adultos como con niños y adolescentes sordos. Además, se han entrevistado diferentes profesionales y miembros de la comunidad sorda. En concreto, tres profesoras que trabajan en diferentes áreas y una persona sorda.

Tal y como se ha explicado en las conclusiones de la intervención, el principal obstáculo para las personas sordas es la comunicación, lo que genera falta de acceso a la información y dificultades para relacionarse. Estas barreras inciden en contextos tan diversos como el

día a día, el ocio, la salud, la educación, etc. La educación de los niños/as sordos/as se debe adaptar a sus necesidades propias, ya que las capacidades de cada niño sordo son muy diferentes y variadas, por lo que los recursos que necesita cada niño y niña son muy variables.

Palabras clave: Teatro del Oprimido, Teatro Foro, comunidad sorda, educación, niños/as sordos/as.

Summary: In this work, the deaf community's daily oppressions are observed and the quality of the educational system for deaf children is analyzed. To this end, personal experiences were studied, and a Forum Theatre was created to portray the situation of deaf people. In this way, the solutions to the barriers and obstacles that the deaf community encounter were proposed through debate and theatre performances.

For this purpose, two theatre workshops, named the Theatre of the Oppressed, were carried out by deaf adults, teenagers, and children. Moreover, education professionals, as well as members of the deaf community, were interviewed: three teachers who work in different areas and a deaf person.

Regarding the conclusions of the intervention, the main constraint for deaf people is communication, which ends up generating a lack of access to general information and difficulties in relating. These obstacles affect contexts as diverse as everyday life, leisure, health, education, etc. As a conclusion, the education of deaf children must be adapted to their own needs; since the capacities of each deaf child are very different to others, the necessary resources for each boy or girl vary a lot.

Keywords: Theatre of the Oppressed, Forum Theatre, deaf community, education, deaf children.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
1.1. JUSTIFIKAZIO PERTSONALA	4
2. MARKO TEORIKOA	5
2.1. ZAPALDUEN ANTZERKIA	5
2.1.1. ANTZERKI FOROA	7
2.2. KOMUNITATE GORRA	8
2.2.1. HAUR GORRAK HEZKUNTZAN	10
2.2.2. PERTSONA GORREN ZAPALKETAK ETA OZTOPOAK	11
3. LANAREN GARAPENA	12
3.1. DIAGNOSTIKOA	12
3.1.1. Testuingurua	13
3.1.2. Parte hartzaileak	13
3.2.3. Informazioa jasotzeko tresnak	13
3.2.4. Informazioa biltzea eta aztertzea	18
3.3. DISEINUA	27
3.3.1. Beharrianak	27
3.3.2. Helburuak	28
3.3.3. Metodologia	28
3.3.4. Antzezlanak, foroa eta baliabideak	29
3.4. ESKU-HARTZEAREN EBALUAZIOA	31
4. ONDORIOAK	34
5. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	36
6. ERREFERENTZIAK	36
8. ERANSKINAK	38
1. eranskina: Haur eta nerabeen antzerki tailerraren kartela	38
2. eranskina: Helduen antzerki tailerraren kartela	39
3. eranskinak: A. galdetegia: pertsona gorrarentzat galderak	40
4. eranskina: B. galdetegia: profesionalentzat galderak	40
5. eranskina: Lourdes Laisearen elkarrizketaren transkripzioa	40
6. eranskina: Mireya Artaberen elkarrizketaren transkripzioa	47
7. eranskina: Ainoa Abaituaren elkarrizketaren transkripzioa	52
8. eranskina: Ainhoa Ruiz de Anguloren elkarrizketaren transkripzioa	55
9. eranskina: Elkarrizketen ideien antolaketa taula	59
10. eranskina: Antzerki Foroaren kartela	62
11. eranskina: Antzezlanaren gidoia	63
12. eranskina: Antzerki Foroaren bideoen linkak	70

1. SARRERA

Komunitate gorra gizartearen baitan bizi den komunitatea da, baina erabateko inklusiorik gabe. Izan ere, gizartea entzuleentzat sortua dago, eta askotan informazioa soinuek eskaintzen dute eta entzumenaren bidez jasotzen dugu. Hori horrela, pertsona gorrek, gizartea kontzienteki konturatzen ez den oztopoak jasaten dituzte, gortasuna begi hutsez antzematen ez den desgaitasuna denez oztopoak ere isilean gelditzen dira.

Komunikazioa gor komunitatearen oztopo nagusietako bat da, eta zeinu-hizkuntza oztopo horren konponbidea. Baina, gizartea ez da pertsona gorren egoerara moldatzen eta zeinu-hizkuntzaz jaso daitekeen informazioa oso eskasa izaten da. Gainera, pertsona entzuleek orokorrean gortasunaren inguruan duten ezjakintasunak, pertsona gorrekin harremantzeko gaitasun eza dakar. Honez gain, hainbat eremu zein testuinguru ez dira pertsona gorrentzat irisgarriak, ez baitaude haien beharretara moldatuak, besteak beste, zinema, antzokiak, tren geltokiak, megafonía duten dendak, etab.

Hezkuntzaren arloan ere, haur gor batzuek zeinu-hizkuntza behar dute beraien berdinekin komunikatzeko, irakasleekin komunikatzeko eta baita ezagutza lortzeko ere. Baina, testuinguru honetan, ahozko hizkuntza komunikaziorako eta ezagutzaren transferentziarako bitartekoa denez, haur gorrek aparteko baliabideak behar ditu bat gehiago izateko beharrezkoa den informazioa eskuratu ahal izateko.

Hori horrela, lan honetan komunitate gorrek haren egunerokotasunean zein hezkuntzaren baitan jasaten dituen oztopoak identifikatuko dira, eta horien inguruan hausnartuko da Zapalduen Antzerkia deituriko metodologia erabiliz. Lana atal desberdinetan banatua dago, alde batetik, gaiaren inguruko marko teorikoan Zapalduen Antzerkia, Antzerki Foroa, komunitate gorraren eta haur gorren inguruko informazioa, teoria eta hainbat autore biltzen dira. Ondoren, esku-hartzearen diseinua egin ahal izateko, komunitate gorrarekin harremanetan jarri eta diagnostiko bat egin da, antzerki tailerrak zein elkarrizketen bidez. Jarraian, diagnostikoan bildutako informazioarekin esku-hartzearen diseinua dugu, besteak beste, Antzerki Foroaren plangintza. Behin Antzerki Foroa martxan jarri, prozesu guztian zehar ateratako ondorioak biltzen dira.

1.1. JUSTIFIKAZIO PERTSONALA

Lana aurrera eramateko motibazioa, komunitate gorra ezagutzen hasi bezain laister etorri zitzaidan, hau da, zeinu-hizkuntza ikasten hasi eta zenbait heldu gorrekin zein haur

gor desberdinekin harremana edukitzearen ondorioz. Gainera, aurten Haur Hezkuntza Graduaren baitan Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez minorreko Adierazpena eta Komunikazio Trebetasuna ikasgaien landutako Zapalduen Antzerkia metodologia, gaia lantzeko modu aproposa iruditu zait. Izan ere, komunitate gorra, gizarte entzuleagatik zapaldua izaten da.

2. MARKO TEORIKOA

Jarraian, Zapalduen Antzerkiaren metodologia zein komunitate gorraren inguruko informazioa eta ezagutza teorikoa bilduko da, ondoren antzezlan bat sortu eta gauatzeko asmoarekin. Beraz, Zapalduen Antzerkiaren barnean, Antzerki Foroaren modalitatean jarriko dugu arreta eta komunitate gorraren barnean, talde honek jasaten dituen zapalkuntzetan; gerora eztabaida eta antzerkiaren bidez, zapalketa horiei irtenbideak bilatzeko. Gainera, haur gorrek hezkuntza sisteman duten lekua eta egoera behatzen da ere, kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea bermatzeko helburuarekin.

2.1. ZAPALDUEN ANTZERKIA

Augusto Boal Brasilgo antzerki zuzendari aipagarria, Zapalduen Antzerkiaren aita da, izan ere, 1971. urtean Zapalduen Antzerkiaren teoria, estetika eta teknika garatu zituen (Baraúna eta Motos, 2009; Jaramillo, 2020). Antzerki mota hau sortzeko, Paulo Freiren hezkuntza ereduan oinarritu zen, besteak beste, eskemak haustean, aldaketak sustatzean eta hezkuntzaren eraldaketan (Baraúna eta Motos, 2009; Gavillanes eta Astudillo, 2016; Jaramillo 2020).

Zapalduen Antzerkia, gizartea transformatzea helburu duen antzerki pedagogikoa da, metodologia honek harremanak komunitatean eraikitzen laguntzen du (Gavillanes eta Astudillo, 2016). Antzerki honetan, gai zehatzak kritikoki lantzen dira publikoaren eta aktoreen arteko hartu-emanaren bidez. Ohiko antzerkietan edo antzerki konbentzionalen informazioa norabide bakarrean doa, eszenatokitik ikusleetara, aldiz, Zapalduen Antzerkian informazioa norabide guztietan doa, ikusleek proposatu, ideiak eta iritziak eman zein antzeztu egiten dute (Boal, 2002). Antzerki konbentzionala ikusleentzat jaiotzen den momentu berean hiltzen da, eta publikoak artelan gisa jasotzen du; aldiz, Zapalduen Antzerkia, antzezpenetik haratago doa, honen oinarrian dagoena aldaketa soziala baita (Forcadas, 2012). Aldaketa horretara iristeko gakoa eztabaida izango da, horregatik hizketa etengabe egongo da presente (Jaramillo, 2020).

Hori horrela, Zapalduen Antzerkiaren helburua izaera politiko, sozial, ekonomiko eta kulturala duten zapalketei kontzientziazioaren bidez irtenbideak bilatzea da. Horretarako, antzerkia eta teknika dramatiko desberdinak erabiliko dira, baita ikusleek jasandako zapalketak eta bizipen errealak ere ikuspuntu kolektibo batetik (Garcia-Romeu, 2014; Gavillanes eta Astudillo, 2016; Forcadas, 2012; Santos, 2016; Baraúna eta Motos, 2009).

Zapalkuntzat hartzen da boterea duen kolektibo batek zaugarria den kolektibo batengan, gizarte bazterketan bukatzen duen nagusitasun harremana. Zapalduen Antzerkian giza-talde osoaren emantzipazioa bilatzen da, zapalkuntza modu kolektiboan tratatuz (Forcadasek, 2012; Jaramillo, 2020). Gavillanek eta Astudillok 2016an nabarmendu bezala, gizakiak indibidualizaziora jotzen du, ondorioz lotura interpersonalekin apurtzen da.

Forn de teatre Pa'tothom (<https://www.patothom.org/es/>) Bartzelonako Zapalduen Antzerkian espezializatutako erakundea da, Jordi Forcadasek eta Teresa Forcadasek sortu zuten. Talde honek giza eskubideen defentsan proiektu desberdinak sortzen ditu, gizarte-bazterketa eragiten duten praktikak desagerrarazteko eta gizarte-eredu alternatiboak bilatzeko helburuarekin. 2012an Forcadas-ek egindako liburuan, beraien proiektuak garatzeko, baina beste edozein proiektu gauzatzeko baliagarriak diren lau fase azaldu zituen:

1. *Sorkuntza*: Zapaldua dagoen kolektibo bat ikusgarri egiteko beharretik etorritako ideia.
2. *Planifikazioa*: Antzezlanaren prozesuan parte hartuko duten kide guztiekin egingo da planifikazioa, horretarako kolektiboak jasaten dituzten zapalketak mahaigaineratuko dira.
3. *Ekintza*: Zapalduen Antzerkia egiteko prozesu osoan zehar ematen diren ekintzak.
4. *Ebaluazioa*: Garrantzitsuena prozesua eta antzezpenean hasierako helburuak islatzea da.

Zapalduen Antzerkiaren barnean, hainbat antzerki modalitate sortu dira, horien artean Antzerki Foroa (Baraúna eta Motos, 2009). Hala ere, modalitate horiek guztietan, interpretazioari era berean ematen zaio hasiera: giza-taldearen zapalkuntzen hautematea (Forcadas, 2012).

2.1.1. ANTZERKI FOROA

Antzerki Foroa 1973an hasi zen metodoa da eta elkarrizketan datza, eszenan gatazka bat aurkeztuz. Bertan, zapalduak (protagonistak) egoera aldatzen saiatzen da, baina ez du lortzen eta porrot egiten du. Horrek bide ematen die ikusleei esku-hartzeko, gatazkaren alternatibak sortu eta antzezpenaren bidez frogan jartzeko. Sorkuntzarako bidea, taldeko norbaitek bizi izandako zapalkuntza-egoera bat eta arazoaren egiturazko kausak ikertzea izango da (Jaramillo, 2020).

Beraz, Antzerki Foroetan aurkezten diren proposamenetan, ikusleen kezkek, arazoak zein nahiak islatzen dira, horien inguruan hausnartu eta irtenbideak bilatzeko asmoz. Publiko baten aurrean antzeztetik haratago doa, aldaketa soziala du helburu (Forcadas, 2012).

Gizarte talde zehatz baten egoera zapaldua aztertuko da, ikusle-taldea zapalketa hori jasaten duen taldea izanik. Horretarako argi eduki behar da protagonista ikuslea dela, beraz, antzezlana sortu aurretik, ikusleak elkarrizketatzen dira, ondoren Antzerki Foroan haien bizipen pertsonalen inguruan eztabaidatu eta irtenbideak bilatzeko (Motos 2017). Zapalkuntzarik adierazgarriena aukeratzen da, ondoren hori eztabaida bat zein irtenbideak sortzeko helburuarekin errepresentatzen da (Forcadas, 2012). Izan ere, gizartearen errealitatea transformatu ahal izateko, egoera zapaltzaileak identifikatzea ezinbestekoa da, ondoren aktiboki komunikatu eta adierazteko aukera edukitzeko (Freire, 1968).

Jarraian, Forcadasek 2012an zehaztutako Antzerki Foro baten parte hartzaileen definizioak:

- *Zapaltzailea*: Egitura zapaltzaile batez baliatzen dena eta egitura horrek bere onurarako iraun dezan jarduten duena.
- *Zapaldua*: Bere egoera aldatzeko borrokatzen duena, zapalkuntza bat baliozkotzat jotzen duten egiturak aldatzeko.
- *Biktima*: Zapaldua dagoen pertsona, baina bere burua defendatzeko baliabide eza dela eta, ezinezkoa egiten zaio egoera bere kabuz eraldatzea.
- *Alienatua*: Ongizate indibidualaren ondorioz, ikuspegi soziala galdu duena da. Ez du borrokarik planteatzen lortutako pribilegioak galtzeko beldurrez.
- *Konplizea* edo *aliatua*: Botere egitura indartzen duen pertsonaia da.
- *Espect-actor*: Ekintzara pasatzen den ikuslea da, zuzenean eragiten dion egitura zapaltzailearekin amaitzeko irtenbideen bila.

- *Jokerra edo coringa*: Eszenaren eta publikoaren arteko elkarrizketa sustatzen du, ikusleek aktorearen papera hartu dezaten. Eztabaida bultzatzen du antzezlanaren helburuak lortzen laguntzeko.

Gizaki guztiok antzezle zein ikusle izateko gaitasuna dugu, hori horrela Augusto Boalek 2002an, “espect-actor” kontzeptua erabiltzen du. Beraz, bere hitzak jarraituz, ikuslea ikusle-aktiboa bihurtzea proposatzen da (espectador → espect-actor), hau da, ikusleak pasiboak izan ordez aktiboak izatea. Besteak beste, botere-harremanen inguruko hausnarketak eginez zapaltzaileen eta zapalduen arteko gertaerak behatuz eta arazoa oinarrian jarritz. Antzerkia, edozein pertsonak erabiltzeko moduko hizkuntza da, gaitasun artistikoak izan edo ez (Boal, 1980).

Antzerki Foroaren aurkezpenean ikusleek modu aktiboan proposamen desberdinak egin ditzakete, besteak beste, obraren aktore bihurtuz. Proposamen horiek behin antzezlanak bukatzean, edota *jokerrari* apropos iruditzen zaion momentuan antzezlanak moztean edota ikusleren batek parte-hartzeko intentzioarekin eskua altxatzen duenean egiten dira. Une horretan, ikusleei ahotsa ematen zaie eta beraien iritzia, irtenbideak eta proposamenak jasotzen dira, ikusleari antzezlearen papera hartzeko gonbidapena eskainiz. (Baraúna eta Motos, 2009). Beraz, parte hartzeak eta inprobisazioak leku handia edukiko du Antzerki Foroetan (Boal 2002; Gavilanes eta Astudillo, 2016).

Foroaren zehar ematen diren irtenbideek ez dute zertan kasu pertsonal guztiei erantzun behar, izan ere, pertsona bakoitzak bizipen eta egoera desberdina edukiko du, hori horrela, helburua gaiaren inguruko eztabaida izango da. Ikuslearen parte hartzea bultzatzeko zein konfiantzazko giroa sortzeko, obrari hasiera eman aurretik *jokerrak* ekitaldiak zein atal edukiko dituen azaldu ez ezik, gorputz hizkuntzarekin eta inprobisazioarekin lotutako jarduerak eta jolasak burutuko dira (Baraúna eta Motos, 2009).

2.2. KOMUNITATE GORRA

Gorren Munduko Federazioaren arabera (<http://wfdeaf.org/>), munduan 70 milioi gor baina gehiago daude; Munduko Osasun Erakundeak (OMS) 2021ko martxoan eguneratutako datuen arabera, munduan 1500 milioi pertsona entzumen galera dute, zeinetatik 430 milioi pertsonak erreabilitazio zerbitzuak behar dituzten. Espainia mailan Pertsona Gorren Estatuko Konfederazioaren (CNSE) arabera, milioi bat pertsona gor daude (<https://www.cnse.es/>).

Entzumen galera eta gortasuna hainbat egoeren ondorioz sortzen da, besteak beste, arrazoi genetikoak, erditzean izandako zailtasunak, zenbait gaixotasun infekziosoak, otitis kronikoak, soinu handien eraginpean egoteak, sendagai ototoxikoak edota zahartzeak eragin dezakete (Becerro eta Pérez, 1989; MOE, 2021).

Entzumena galtzea arina, neurritzkoa, larria edo sakona izan daiteke. Entzumen galera arin edo larria duten pertsonak, "belarri gogorrak" dira, aldiz pertsona "gorrek" entzumen galera sakona dutenek dira. Pertsona guzti hauek audifonoak, kokleako inplanteak eta bestelako gailu batzuk erabil ditzakete komunikatzeko laguntza gisa (MOE, 2021). Baina, pertsona gorrek komunikaziorako berezko hizkuntza bat dute ezaugarri, besteak beste, zeinu-hizkuntza (Torres, 1999). Gorren Munduko Federazioak hala berretsita, munduan 200 zeinu-hizkuntza baino gehiago daude daude.

Kolektibo hau askotarikoa, anitza eta heterogeneoa da, bakoitzaren gortasun motagatik eta erabilitako komunikazio modugatik ez ezik, banakako ezaugarriengatik zein testuinguru sozialarengatik (familia, hezkuntza, etab.). Hala ere, denek komunean duten ezaugarria, gortasuna, beraien identitatearen eraketan garrantzi handia du; baita zeinu-hizkuntza zein hezkuntza elebiduna eta bikulturala sustatzeko garaian ere (CNSE, 2002; Suárez, Rivas, eta Caballero, 2021).

Monteroren (2014) arabera, portaerak partekatu eta ezaugarri komunak dituzten pertsona taldeek komunitateak osatzen dituzte; non gizabanakoa seguru sentitzen den eta identitate sentimendua garatzen joan daitekeen. Hori horrela, komunitate gorrek kultura zein hizkuntza propioa du, zeinu-hizkuntza, eta helburu zein interes berdinak dituen pertsona gorrek zein entzuleek osatzen dute (Torres, 1999).

CNSEk defendatzen duenez (<https://www.cnse.es/index.php/personas-sordas>), komunitate gorraren helburu nagusia, gorren giza-taldea ahalduntzea da, beraien hizkuntza, kultura, balore eta jarrerak bultzatuz; komunitatearen ezaugarri bereizgarria zeinu-hizkuntza izanik. Aldiz, gor guztiek zeinu-hizkuntza ez ezagutzeak eta gortasuna gaixotasuntzat hartzeak, gizartearen ikuspuntutik komunitate gorraren eraketaren sinesgarritasuna ahultzen du (Palacios, 2008). Aldiz, Espainian 400.000 pertsonak erabiltzen dute zeinu-hizkuntza (CNSE, 2011).

Oro har, gizarteak pertsona gorra gaixo dagoen eta tratatua izan behar den pertsonatzat ikusten du, gortasuna dela eta bizitzako hainbat eremuetan ezin izango dela garatu ustez. Baina, komunitate gorrek honen aurrean bat-bateko erantzun naturala eman

zuen, non arlo soziokulturalean zein linguistikoan sortu daitezkeen zailtasunei aurre egingo diona: zeinu-hizkuntza (CNSE, 2002).

2.2.1. HAUR GORRAK HEZKUNTZAN

Haur gorrak, haur entzuleekin komunikatu eta elkarreragin behar du, informazioa jaso zein transmititu eta bere pentsamendua garatu behar du. Baina, oztopo komunikatiboek eragina izan dezakete sozializazioan zein nortasunaren eraketan. Hori horrela, haur gorren kalitatezko hezkuntza ziurtatzeko, baliabide pertsonalak (irakasleen formakuntza), baliabide materialak (frekuentzia modulatuak, gela barruan non eseri...) edota bestelako laguntzak (ezpain irakurketaren ikaskuntza, entzumen entrenamendua, ahozko zein zeinu-hizkuntzaren bidezko adierazpena...) beharrezkoak dira (CC.OO. de Andalucía, 2010). Entzumenak, ikusmeneak, ukimeneak, propiozepzioak (gure garunak gure gorputzeko atal guztiek une bakoitzean duten posizio zehatza jakiteko duen gaitasuna), zein organo bestibularrak espazio eta denboran orientatzen laguntzen digu. Beraz, haur gorren hezitzaile edota irakasleak umearen entzumenean ez ezik, bestelako zentzumenetan jarri behar du arreta handia. Horrela, ume gorrak espaziozepzioa gara dezan (Becerro eta Pérez, 1989).

Komunitate gorrek hezkuntza elebiduna eta bikulturala defendatzen du, hau da, zeinu-hizkuntza eta gorren kultura zein identitatea aintzat hartzea, inguru horren ahozko hizkuntzari eta kulturari ematen zaion trataera linguistikoa zein kurrikular bera emanez (CNSE, 2002).

1920tik 1950ra Pinterrek burututako ikerketaren emaitzetan sinisten zen. Haren arabera, haur gorrek entzuleekin konparatuta bi urtetako adimen-atzerapena eta bost urtetako hezkuntza-atzerapena zuten. Hori guztia, adimen gutxiagotasunari zein hizkuntza ezari egozten zitzaion, baina 1960an, ideia hura deuseztatzen hasi zen (Torres, 1999).

Aimardek eta Morgonek (1989) aitortua, haur gor gehienek hezkuntza bereziko zentroetara joaten ziren. Aurretik azaldu bezala, gaur egun hezkuntza elebidunagatik borrokatzen du komunitate gorrek oraindik, izan ere, ahozko hizkuntzan oinarritutako hezkuntzan, haur gorrek oso zaila edukiko du gainerako kideek bezala aurrera egiteko. Hori horrela 2002an CNSE-k ume gorrentzat zuzendutako gida elebidunaren proposamena egiten du, hezkuntza eremura honen inguruko informazioa eta sentsibilizazioa hedatzeko asmoarekin. Ikasle gorren hezkuntza inklusiboa azken hamarkadetan arrakastatsua izan da Espainiako lurraldeko hainbat autonomia-erkidegotan aurkeztutako proposamen edo ekimen

elebidun/bikulturaletan oinarrituta, esate baterako Madrilgo Ponce de Leon eskolan, Gaudem eskolan edota Murtziako Santa Maria de Gracia eskolan (Pedrosa eta Cobo, 2017).

Zeinu hizkuntza, orain dela 500 urte baino gehiago hasi zen erabiltzen haur gorren ikasketa prozesuan, Pedro Ponce de León irakasleak XVI. mendean, zehazki 1533. urtean, eskolak ahozko hizkuntzaz eta seinalatuz emateaz gain, alfabeto daktitologikoa (hizki bakoitzaren eskuzko adierazpena, hau da, zeinu-hizkuntzazko alfabetoa) erabiltzen hasi zen (Federación Andaluza de Asociaciones de Sordos, 2004).

2.2.2. PERTSONA GORREN ZAPALKETAK ETA OZTOPOAK

Pertsonen artean bereizketak edo kategorizazioak egiteko joera sozial argia egon da eta dago, bereizketa edo kategorizazio horiek arau soziala jarraitzen ez duten edo arau sozialetik desbideratzen diren pertsonengan ematen dira, kasu honetan pertsona gorrak (CNSE, 2002).

CNSEren arabera (<https://www.cnse.es/>), kolektibo honek ezaugarri zehatzak dituen gutxiengo linguistiko eta kultural bat osatzen du. Hori horrela, entzumen galerak egunerokotasuneko hainbat inguruetan eragiten du, ondorioz, heldu gorren langabezi tasa askoz handiagoa da. Gaur egun oraindik, pertsona gorrak gaixotzat eta desgaitutzat hartzen dira (OMS, 2021). Torresek (1999) azaldu bezala, orain dela gutxi arte pertsona gorrek entzuleek baino adimen gutxiago dutela pentsatu izan da.

Haur gorrek eskolan integratu daitezzen, ahozko hizkuntza menperatu beharko dute. Izan ere, entzuleen jarduerak zein pausuak jarraitu behar dituzte, eta horretarako aparteko ahaleginak egin beharko ditu haur gorrak. Gainera, sei urterekin ahozko hizkuntza maila onargarria ez duen gorrak, entzuleak diren haurren gela baten barruan arrakasta izateko aukera gutxi edukiko ditu (Aimard eta Morgon, 1989).

Entzule gehienek ez dute gor komunitatea ezagutzen eta beraz, ez dakite harekin nola komunikatu; gainera, pertsona gorrek ere, ez dakite nola aurre egin entzuleen munduari. Honen ondorioz, bi komunitateen artean inkomunikazio handia sortzen da. Hori horrela, pertsona gorrak askotan baztertuak sentitzen dira, izan ere, gor batek ahozko hizkuntza ikasi arren, beti izango da gorra eta soinu-estimuluz beteriko gizarte batek ezarritako mugak jasango ditu. Gorrari ezpainak irakurtzeak lagundu egiten dio komunikatzeko garaian, baina elkarrizketa asko ez dira zuzenekoak edota pertsonatik-pertsonara izaten, beraz ulermen-zailtasunak izaten dituzte (Torres, 1999).

3. LANAREN GARAPENA

Lehenik eta behin, Zapalduen Antzerkian oinarritutako antzerki tailerrak prestatu dira, jarduerak gortasuna jasaten duten pertsonentzat zuzenduak direla kontuan hartuz. Ondoren, ASPASOR elkartearekin hitz egin eta bi tailerren proposamena egin zaie; onarpena jaso bezain laster, bi kartelak egin (1 eta 2. eranskinak) eta pertsona gorren artean zabaldu dira.

Egun berean eraman dira aurrera antzerki tailerrak, goizez helduekin eta arratsaldez nerabeekin. Tailerren ordenak zergati bat du, goizean ni bakarrik moldatu naiz helduen tailerrean, aldiz, arratsaldean bestelako begiraleen laguntza izan dut. Beraz, goizean helburuen tailerrean parte hartu duten bi helduk, arratsaldean begirale izan dira, beraiek tailerraren nondik norakoak ezagutzeko ere. Behin tailerrak bukatu, hauetatik ateratako informazioa eta adin desberdinetako pertsona gorrek jasaten dituzten bizipenak idatziz antolatu ditut.

Ondoren, elkarrizketak egiteko galdetegiak sortu ditut: bata haur gorrekin lan egiten duten profesionalentzat zuzendutakoa (4. eranskina) eta bestea pertsona gorrentzat zuzendutakoa (3. eranskina). Hiru profesional (5, 6 eta 7. eranskinak) eta pertsona gor bat (8. eranskina) izan dira elkarrizketatuak. Guztira lau bilera izan dira, eta hauetatik ateratako esperientziak zein datuak taula (9. eranskina) baten bidez antolatu ditut.

Bi tresna horien bidez bildutako informazio eta bizipenekin Antzerki Foroa martxan jartzeko erabili dut, izan ere, datu horiekin antzezlanak (11. eranskina) sortu ditut. Antzerki Foroaren kartela egin (10. eranskina) eta komunitate gorraren zein bestelako ikusleak gonbidatu dira ekitaldira. Bukatzeko, Antzerki Foroa aurrera eraman da, eta antzerkia zein eztabaida izan dira nagusi.

3.1. DIAGNOSTIKOA

Esku-hartzearen diseinua prestatu aurretik, komunitate gorraren inguruko diagnostikoa egitea beharrezkoa da. Pertsona gorren beharrak edota oztupoak identifikatzeko haien bizi-esperientziak bildu ditut, arreta berezia ipiniz hezkuntza eremuan.

3.1.1. Testuingurua

Diagnostiko honetan pertsona gorrek haien egunerokotasunean zein hezkuntzaren testuinguruan jasaten dituzten hainbat zapalketa identifikatu dira, ondoren, honen inguruan eztabaidatzeko asmoarekin Antzerki Foro baten bidez. Informazioa jasotzeko komunitate gorraren parte diren pertsona desberdinen zein hainbat profesionalen esperientziak bildu dira bi tresna desberdinen bidez. Alde batetik, antzerki tailerrak (A tresna) eta bestalde elkarrizketak (B tresna). Tresna horietatik lortutako datuak, komunitate gorraren zapalketen inguruko Antzerki Foroa sortzeko erabili da, non komunitatearen parte diren hainbat pertsona egon diren ikusle edota “*espect-actor*” bezala.

3.1.2. Parte hartzaileak

Diagnostikoa egiteko parte hartzaileak honakoak izan dira: alde batetik, antzerki tailerretan 6 heldu gor, haur gor baten gurasoa eta 7 ume eta nerabe gor parte hartu dute. Helduak, 25 eta 52 adinaren tartekoak, horietako bi etorkin, orain dela gutxi bertaratutakoak; nerabeak aldiz, 11 eta 16 adin tartekoak.

Bestetik, elkarrizketetan guztira lau pertsonak hartu dute parte; zehazki, gorrekin lan egiten duten hiru irakasle (Lourdes, Mireya eta Ainoa) eta pertsona gor bat (Ainhoa). Irakasleek eskola mota desberdinetan egiten dute lan, Lourdes eskola gor bateko irakaslea da, Mireya Pedagoga Terapeutikoa (PTa) da taldekatze eskola batean eta Ainoa ohiko eskola batean logopedia lanetan ibiltzen da.

Parte hartzaile guztiak boluntarioak izan dira eta guzti horien parte hartzea ezinbestekoa izan da behaketa aurrera eraman ahal izateko, izan ere, pertsona bakoitzak bere bizipen edo esperientzia propio desberdinak ditu, eta beraz, ekarpen anitzak ere. Gainera, haien anonimotasuna zaintzeko, lanean zehar ez da izenik aipatuko.

3.2.3. Informazioa jasotzeko tresnak

Informazioa jasotzeko, tresna desberdinak erabili dira: antzerki tailerrak (ikusi 1. eta 2. eranskinak) eta elkarrizketak (ikusi 3. eta 4. eranskinak). Honez gain, elkarren artean komunikatzeko tresna, ahozko hizkuntza zein zeinu-hizkuntza izan dira, besteak beste, bi

antzerki tailerrak eta elkarrizketa bat zeinu-hizkuntzaz egin dira, eta beste hiru elkarrizketak ahoz.

A tresna: antzerki tailerrak

Antzerki tailerra, pertsona gorrei zuzendutako tailerrak diren heinean, ASPASOR elkartearekin bat egiten antolatu dira. Pertsona gorrentzat zuzenduak izan direnez, diagnostikoa egiteko oinarrizko tresna izan da, komunitate gorraren parte diren pertsona anitzen bizipenak jaso ahal izan direlako, bereziki adin zein kultura desberdinetako pertsonenak. Horretarako, bi antzerki tailer egin dira, horietako bat haur edo nerabe gorrei zuzendua (ikusi 1. eranskina) eta bestea heldu gorrei zuzendua (ikusi 2. eranskina).

Bi tailerrak era berean egon dira antolatuak, besteak beste, lehenengo berotzeko hiru jarduera eta jarraian gorputz adierazpenean oinarritutako hiru jarduera. Lehenengo jarduerak parte hartzaileek konfiantza hartzea dute helburu, bigarren erdiko jarduerak aldiz, pertsona gorren bizipenak edo esperientzia zapaltzaileak biltzea.


1. ENERGIA PASA

Partaide guztiak borobil batean kokatuko dira eta txandaka energia duenak energia pasako du beste kide bati. Hiru norabidetan pasa dezake energia:


1. *Ya!* Norazkoa errespetatuz, bere ondokoari pasako dio energia.
2. *Boing!* Norazkoa aldatu eta energia pasa dionari bueltatuko dio energia.
3. *Super heroia!* Partaideak borobilean dagoen edozein kideri pasako dio energia, horretarako salto bat eman eta kide hura seinalatuko du.

**Kaos!* Edozein partaidek, bere txanda iristean “*kaos!*” esan dezake. Orduan partaide guztiek borobilean duten lekua aldatuko dute. Ondoren, pertsona berak jarraituko du energia pasatzen, betiere norabidea zainduz.


Jardueraren hasieran, energia norabide berean joango da (*ya!*), baina progresiboki mugimendu edo aukera berriak sartzen joango dira (*boing!*, *super heroia!*, *kaos!*).




Ya!




Boing!



Super Heroia!



Kaos!




2. MOSKITO TXINATARRA

Partaide guztiak borobil batean kokatuko dira eta Moskitoa oso animalia arriskutsua dela kontuan harturik, ekintza hasiko da.

Kide baten gainean Moskito Txinatarra jarriko da, orduan kidea makurtu egingo da. Bere ondokoek kidea babesteko Moskitoa izutuko dute kidearen gainean txalo eginez. Biek batera egingo dute txaloa.


Orduan, Moskitoa hurrengo pertsonaren gainean jarriko da eta bere ondoko kideek Moskitoa izutuko dute ere. Horrela, txandaka borobilean zehar ibiliko da Moskitoa. Pixkanaka, erritmoa handituko dute partaideek ahal bezain azkar egitera iritsi arte.



3. KEINUA HANDITU - TXIKITU

Partaide guztiak borobil batean kokatuko dira eta txandaka keinu bat errepikatuko dute. Keinua hasten duen pertsonak, keinua asmatuko du, bere ondokoak, keinua pixka bat handitu edo esajeratuko du, hurrengoak pixka bat gehiago.

Keinua guztiz handitzean, hura txikitzen hasiko dira partaideak. Pixkanaka keinua ahal bezainbeste txikitu arte.




Keinu handitzen

Keinua txikitzen

Aurretik aipatu bezala, bigarren atal honetan, jardueren helburua bizipen edo egoera personalak biltzea izango da. Horretarako, gorputzaren bidezko adierazpena egongo da jardueren oinarrian.

4. ESKUA EMAN ETA POSTURAK


Binaka eskua emango dute eta postura neutro batean kokatuko dira bi gorputzak. Bakoitza bere bikotea gainditzen saiatu beharko da, fisikoki nahiz emozionalki. Horretarako, kide bakoitzak bere txanda iristean mugimendu bat egingo du helburua bestea zapaltzea izanik.



5. IRUDI IZOZTUAK

Taldeka, irudi izoztu baten bidez egoera pertsonal bat islatuko dute, horretarako denbora izango dute elkarren artean esperientzia desberdinak partekatzeko.

Ondoren, talde bakoitzak bost irudi izoztuen sekuentziaren bidez beste bizipen bat kontatuko dute, irudi izoztu desberdinekin ekintza edo mugimendua adieraziz. Beraz, talde bakoitzak bi bizipen kontatuko ditu; guztira lau egoera erreal.



etorri diren pertsonak dira eta gaztelaniaz komunikatzea kosta egiten zaie, gainera etorkinetako bat ez da zeinu-hizkuntzaz komunikatzen. Bestea, zeinu-hizkuntza kolonbiarra erabiltzen du, honek esan nahi du espainiakoa ez duela ezagutzen. Honen ondorioz, hainbat azalpen ulertzeko zailtasunak eduki dituzte; haien egunerokotasunean ere, hizkuntza, gor izateari gehitzen zaion oztopoa izanik.

Aurrena, aurkezpenak egin ditugu, eta tailerraren zergatia zein helburua azaldu zaie partaideei. Jarraian tailerrari hasiera eman zaio berotzeko jarduerekin; “energia pasa” ariketa oso ondo joan da, aldiz, “moskito txinatarrak”, kontzentrazio eta erreflexu handia behar duen jolasa izanik ez da hain ondo joan. Izan ere, jarduera etengabea moztu egin da, saiakera batzuk egin ditugu, baina partaideak ez dira aurreneko jardueran bezain gustora egon, beraz, hartu dudak erabakia hirugarren jarduerara pasatzea izan da. Erabaki zuzena izan dela uste dut, izan ere, “keinua handitu - txikitu” jarduerarekin, “energia pasa” ariketan sortutako giro atsegina errekuperatu dugu.

Ondoren, tailerraren bigarren atalean, parte hartzaileen bizipenekin eta sormenarekin hasi gara lanean. “Eskua eman” jarduera, ondo funtzionatu duela ikusita, inprobisazio txikiak egiteko momentua iruditu zait. Hortaz, bi bolondres zirkuluaren erdian jarri, ariketarekin hasi, eta bat-batean izozteko eskatu diet. Postura zehatz batean izoztu, eta gainontzekoek ea zein egoera izan liteke pentsatu dute, bolondresek egoera horren inguruko inprobisazio txiki bat egiteko. Segidan, binaka ordeztu hirunaka egin dute jarduera, baina oraingoan pertsona bat neutro jarrita gorputza; eta beste biak, haren inguruan kokatuz postura jakin batean, neutro dagoen hura zapaltzeko.

Jarduera hartan atera diren gai edota zapalkuntzek ez dute gortasunarekin loturarik eduki. Azken finean pertsona gorrek, entzuleok jasaten ditugun bidegabekeriak ere jasaten dituzte, besteak beste, homofobia eta arrazakeria izan dira ariketa honetan atera diren gaiak.

Baina, bereziki komunitate gorrek jasaten dituen oztopoak identifikatzea denez tailerraren helburua, azken bi jarduerari bidea irekitzeko, hemendik aurrera gorrek izateagatik jasaten dituzten zapalkuntzetan oinarritzeko eskatu diet. “Irudi izoztuak” eta “inprobisazioak” jardueretan, hainbat bizipen partekatu dituzte partaideek. Bizipen horietako batzuk elkarren artean antzekoak dira, eta beraz, honako multzo hauetan banatu ditut:

1. Bakardadea:

Bakardadearen inguruan, irudi izoztu bat egin zuten, non bakoitzak, bakarrik noiz sentitu izan den azaldu duen. Partaideetako bat bakarrik sentitu zen Euskal Herrian bizitzera emigratzean, bere familiaren babesa sentitu ez zuenean, baita ere, behin hemen dagoela inor ezagutzen ez duelako. Beste batek azaldu digu bakarrik sentitzen dela orokorrean bikote erlazio batean ez dagoenean, izan ere, bikote harreman batean egoteko ohitura du. Gurasoa bakarrik sentitzen da, haren lagunak momentu txarretan bere ondoan ez daudenean; eta irudi izoztuaren laugarren parte hartzailea bakarrik sentitzen da etengabe bere gortasunaren inguruko azalpenak eman behar dituenean.

Aurretik aipatu bezala, komunitate gorraren sentipen guztiak ez dira gortasunari lotutakoak, bakardadea guztiok sentitzen dugu, bakoitzak bere zergati edo bizipen propioen ondorioz. Argitu beharrekoa da, bakardadea ez dela zapalketa bat, baina laugarren parte hartzailearen kasuan bada zapalketaren harira sortutako ondorioa.

2. Musukoa:

Covid egoeraren ondorengo musukoaren erabilpenak, pertsona gorren komunikazioan zuzenean eragin du. Honen inguruan bi egoera desberdin ageri dira; biak izoztutako irudien sekuentziaren bidez azalduak.

Aurrenekoa, kide bat bere jaioterritik Gasteizera etortzean, aireportuko testuinguruan bizitakoa: Bere herrialdean ez zegoen musukoen derrigortasunik, aldiz, Euskadin jada nahitaezkoak ziren. Hortaz, aireportura iritsi zenean, langileak zein kaletarrak musukoarekin aurkitu zituen, berarentzat sorpresa galanta. Ez zuen inor ulertzen eta galduta sentitu zen, musukoek ezpainak estaltzen dituelako eta nahiz eta kasu honetan audifonoa erabili, bestea ondo ulertzeko bere ezpainak irakurri behar ditu.

Beste eszena, bertako partaide gor guztiek noizbait bizitako egoera izan da. Tabernetan edota jartetxeetan zerbitzariekin komunikatzeko oztopoa da musukoa, izan ere, ahoa estalita daramate. Ondorioz, pertsona gorrek ez daki bestea isilik edo hitz egiten ari den, eta gainera ez du ulertzen esan nahi duena. Pertsona gorrek

entzuleekin daudenean; zerbitzariaren erantzuna gorra den pertsonarekin dagoen entzulearengana jotzea izaten da, pertsona gorraren autonomia gutxietsiz.

3. Hezkuntza:

Hezkuntzari buruz bi agerraldi inprobisatu dituzte azken jardueran. Lehenengo eszenan, haur gor baten interpreteak besoa hautsi eta baja hartzearen ondorioz, haurra interprete gabe eta beraz, ezer ulertu gabe gelditu da gelan. Eszenan, zuzendariaren eta haurraren gurasoaren eztabaida ikusi da, gurasoak ordezeko interpretea eskatzen du haren alabarentzat. Aldiz, zuzendariak, eragozpen handiak jartzen ditu, eta hori ezinezkoa dela dio, bere alaba inplantatua balego arazoa konponduta egongo litzakela aholkatuz. Gurasoa oso haserre erantzuten du, hau guztiarekin, haurraren eskubidea den kalitatezko hezkuntza ez dagoelako jasotzen ari.

Hurrengo eszenan, etorkina den haur bat dugu, bere ama-hizkuntza zeinu-hizkuntza kolonbiarra da, eta ez espainiako zeinu-hizkuntza. Hortaz, nahiz eta ikasgelan berarekin espainiako zeinu-hizkuntzaz komunikatzen saiatu, haurrak ez du ezer ulertzen; eta berari ere, ez diote ulertzen.

4. Osasuna:

Osasun sistemaren gainean, beste bi egoera azaldu dituzte partaideek irudi izoztuen bidez. Bi egoerek zerikusia dute, osasun-zentrotik gorra den pertsonarekin telefonoz komunikatzeari buruzkoak baitira.

Lehenengo egoeran, ospitaletik pertsona gorrarekin telefonoz harremanetan jarri nahi dutela ikusten da. Jakina, ez ditu deiak hartu, eta dei galduen zerrenda izugarria aurkitzen du mugikorrean. Egoera hau oso errepikakorra izaten da, eta askotan hirugarren pertsona entzule baten "laguntza" behar izaten dute gorrek, osasun-zentroetako langileak gorretara moldatzen ez direlako.

Bigarren egoeran, pertsona heldu gor batek ere ez du telefonoa hartzen, medikutik deika ari dira behin eta berriz, baina ez da deietaz konturatzen. Mugikorra erantzuten ez duenez, bere amari deitzen diote, eta alaba haurdun dagoela adierazten diote; bere alabaren pribatutasuna zaindu gabe.

Antzerki tailerrari bukaera emateko, atera diren gai guzti horien laburpena egin eta parte hartzaileei eskerrak eman zaizkie. Beraiek ere eskerrak bueltatu dituzte, oso gustora egon direla eta beste behin errepikatu nahi dutela esanez. Gizarte Etxetik ateratzen, antzerki tailerraren zehar aipatutako egoera deseroso bat jasan behar izan dugu, izan ere, musukoak jetsiak eraman ditugu elkar ulertu ahal izateko. Bertako segurtasuneko langileak ikusi gaitu eta modu txarrean guregana hurbildu da musukoak behar bezala jartzeko adieraziz. Partaide gor batek egoera azaldu dio, musukoarekin ezin dugula elkar ulertu esanez eta korridorean beste inor ez zegoelako jetsi ditugula argituz. Langileak ez du ulertu nahi izan musukoak pertsona gorren komunikazioa eteten duela; eztabaida luzea izan da, eta haren jarrera neurritz kanpokoia izan da.

Horrelako egoerak, uneoro bizitzen dituzte pertsona gorrek. Langile hurak enpatiaz jokatu ordez, bere lanak aitortzen dion boterea erabili du era oldarkor batean. Antzerki tailerretan musukoaren inguruan plazaratutakoa, errealitatean bizi dugu modu natural batean.

Haur eta nerabeen antzerki tailerra:

Arratsaldean, haur eta nerabeen antzerki tailerra eraman da aurrera, bertan, zazpi gazte gorrek hartu dute parte. Bertako denok elkar ezagutzen gara, beraz, ez ditugu aurkezpenak egin behar izan eta berotzeko jarduerekin hasi gara zuzenean. Denboraz falta dela eta, bigarren jarduera, “moskito txinatarra”, kentzea erabaki dut, helduen tailerrean nahiko eskas atera den jarduera izan delako. Hala ere, “energia pasa” zein “keinua handitu eta txikitu” jarduerak primeran joan dira.

Jarraian, tailerraren bigarren erdira egin dugu salto, hau da, gorputz adierazpena eta sormena eskatzen duten jardueretara. Aurrena “eskua eman” jarduera askotariko gaiak atera dira: lapurketak, lagunaren arteko borrokak, bikote arteko arazoak, jeloskortasuna, etab. Berriz ere, helduen tailerrean bezala atera diren gaiek, ez dute gortasunarekin loturarik eduki.

“Irudi izoztuak” izan zen azken jarduera, ez genuen denborarik izan “inprobisazioak” egiteko. Hala ere, “irudi izoztuak” jardueran, gorrieriarekin lotutako hainbat egoera desatsegin eta bidegabekeri azaldu dituzte haurrek. Kasu honetan, bi multzotan banatu dituzte elkarrekin partekatutako egoera deberdinak:

1. Eskolan:

Bigarren Hezkuntzatik aurrera, kasuaren arabera gelaren barnean interpretea eduki dezakete gazte gorrek. Haur Hezkuntzan zein Lehen Hezkuntzan aldiz, haur gorrek ez dute interpreterik izaten. Bigarren Hezkuntzan ere, egoera beti ez da izaten gazteek nahiko luketen bezalakoa, eta elkarren artean bat egiten zuen bizipena azaldu zuten.

Interpretera gaixotzen denean, berandu egiten zaionean, edo dena dalakoarengatik, interpretea ez dagoenean nerabe gorrek ezin dute klasearen erritmoa jarraitu. Partaide desberdinek azaldu dute, hau gertatzen denean bakarrik sentitzen direla. Gainera, irakaslea erritmoa ez jarraitzeagatik errieta bota izan diela diote.

2. Lagun artean:

Eskoletan, haur gorrek haur entzuleekin elkartzen dira. Beraien egoera berean dauden haur gorrekin elkartzeko aukera, ASPASOR elkarte da. Hortaz, eskolan ahoz komunikatzen diren kideak inguratuak daude nerabeak. Partaideetako batzuk bat egiten dute: gelakideek gelan zein patioan ahoz hitz egiten dutenean, aspertu egiten dira eta elkarrizketan galdu egiten dira.

Gaineraz, gaztetxo gor batek, zeinena zeinu-hizkuntza den komunikazio modu bakarra, adierazi du bere gelako kide batzuk zeinu-hizkuntzaz badakitela zertxobait bada ere. Aldiz, gelan hauekin eserita egon ordez, beraiekin komunikatu ahal izateko; beste ikaskide batzuk dituela ondoan, zeintzuk zeinu-hizkuntzaz ez dakiten eta ahoz komunikatzen diren uneoro. Beraz, gela barnean ezin da bere kideekin komunikatu.

Jarraian, tailerra bukatutzat eman aurretik, bi taldetan egon ginen egoera pertsonaletaz hitz egiten. Talde horiek adinaren arabera egin dira, adin antzekoa duten haurrek bizipen antzekoak edukiko dituztelako eta elkar gehiago enpatizatuko dutelako. Aurretik esan bezala, gorrek bizitzen dituzten zapalketak edo egoera deserosoak anitzak dira, baita gortasunarekin lotura ez duten egoerak ere.

B tresna: elkarrizketak

Ondoren, haur zein pertsona gorrekin lan egiten duten hiru profesional, eta pertsona gor bat elkarrizketatu ditut (ikusi 5, 6, 7 eta 8. eranskinak). Elkarrizketa hauek hainbat datu atera ditut (ikusi 9. eranskina).

Elkarrizketatutako hiru profesionalek hezkuntzan sistemaren baitan egiten dute lan, baina bakoitzaren egoera oso desberdina da. Izan ere, bakoitzak funtzio desberdina bete ez ezik, eskola mota desberdinetan egiten dute lan. Elkarrizketetan (5, 6 eta 7. eranskinetan) ikusi daitekeen bezala, gorren eskoletan haur gorrek baliabide eta erraztasun gehiago izaten dituzte bestelako eskoletan baino. Aldiz, taldekatze eskolako haurrek baliabide gehiago dituzte ohiko eskoletako haurrek baino.

Haurrek, hezkuntzan giza-baliabide desberdinak dituzte etaparen arabera: Haur Hezkuntzan (HH), Lehen Hezkuntzan (LH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), Pedagogoa Terapeutikoak (PT) eta logopedak; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko hezkuntzan (DBHO) aldiz, interpreteak. Hala ere, kasu bakoitzaren arabera laguntza moldatu daiteke, eta noiz behinka interpreteak LHn edo DBHn ere ibiltzen dira. Familiak eta irakasleak biltzeko hala behar izanez gero, interpretea eskatzen da ere, Lourdesen kasuan ez da beharrezkoa izaten irakasle guztiek dakitelako zeinu-hizkuntzaz, Mireyaren kasuan batzuetan interpretea kanpotik ekartzen dute eta bestetan berak hartzen du ardura hori. Bestalde, Ainoak dio orain eskolak ekartzen duela bileren interpretea, baina orain dela urte batzuk familiak eramaten zuela, baina beharra bien aldekoa zela konturatu ziren eta ez bakarrik familiaren kontua eta beraz, joera aldatu egin zen.

Mireya eta Ainoa irakasleen iritziz, interpretea izateko eskubidea eduki beharko lukete haurrek etapa guztietan zehar. Lourdesen iritziz, lehen etapa horietan irakasleak ikasleengandik gertuago daude eta haur gorren beharretara moldatu daitezke, beraz interpretearen beharra ez litzake beharrezkoa izango. Baina, Lourdesek aipatzen duenez, bere eskolan entzumen eta mintzairaren espezializazioa duten profesionalen laguntza dute ere.

Ainhoaren esperientzia behatuta, DBHko hirugarren mailatik aurrera interpretea eta zeinu-hizkuntzaz zekien PT baten babesa eduki zuen. Baina, gela barnean zeinu-hizkuntzaz zekien irakasle baten falta somatu zuela aipatzen du ere. Laguntza akademikoa zein logopedia ASPASOR elkarteak eta bere familiar entzuleek eskaini zioten, egunero biltzen zen bere izeba eta amonarekin eskolako lanak egiteko eta ahozko hizketa praktikatzeko.

Beraz, bere ikaskideek baino lan eta saiakera gehiago egiten zituen Ainhoak etxean; Mireyaren hainbat ikaslek ere kexatu egiten dira, besteek baino zailtasun gehiago edukitzeaz gain, lan gehiago egin behar dutelako. Izan ere, Mireyaren arabera, irakurketa eta idazketa oztopo handia da haur gorrentzat, eta beraz hori landu egin behar da.

Ainhoa hizkuntzetan (euskara eta ingelesa) klasetik atera eta bestelako gela egonkor batean sartzen zuten, bertan aspertu egiten zen. Urte luzez hizkuntza horiek ez zituen landu, aldiz DBH 3. mailan konturatu ziren bestelako ikasleak bezala, hizkuntzak ikasteko gaitasuna zuela. Hortaz, interpretearen eta PTaren laguntzaz 3. maila hartan, LH osoko zein DBH 1, 2 eta 3. mailako hizkuntzen maila eskuratu zuen bere kideen parean jarriz. Azterketak ez zitzaizkion inoiz moldatu, eta arazorik gabe gainditzen zituen.

Ainhoa beti lehenengo ilaran esertzen zen, modu honetan irakaslearen ezpainak ondo ikusi ahal izateko, kideak txandakatu egiten ziren bere ondoan esertzeko eta laguntza eskaintzeko. Gaur egun, hiru profesionalek diotenez, Frekuentzia Modulatuaren (FM) bidez, haur gorrari irakaslearen ahotsa inguruko zaratak garbituz iritsiko zaio inplantea edo audifona duen haurrari zuzenean, nahiz eta irakaslea gela osotik mugitu.

Mireyak dio haur gorrei eta haur entzuleei testu-liburu bera ematen zaiela, nahiz eta askotan ez izan hura ulertzeko gaitasunik. Hiru irakasleek diote, materiala haur gor bakoitzaren beharren arabera moldatzen dela, besteak beste, testuak sinpletuz, irudiak txertatuz edota zeinu-hizkuntzara itzulpenak grabatuz bideo bidez. Materialaren moldaketa horren ardura haur gorrarekin egoten den profesionalak hartzen du, izan ere, Lourdes irakasleak, Mireya PTak zein Ainoa logopedak moldaketa horiek egiten ditu. Ainhoak ere, onartzen du irakasleak moldatu egiten zirela eta laguntzen saiatzen zutela.

Honez gain, Mireya, Ainoa eta Ainhoa bat egiten dute entzuleekin komunikatzeko oztopoarekin, zeinutan soilik egiten duten haur gorrek ez dute benetako komunikaziorik beste kideekin. Ainhoaren kasuan ez da horrela izan, baina bere ustez hau auzoko eskola batean egotearen ondorio da, bere hitzetan, bere kideak auzoko lagunak eta bizilagunak dira, beraz bere ahotsa ohituak egon ez ezik, batzuk zeinu-hizkuntzaz pixka bat moldatzen ziren.

Baina, Ainoak ere nabarmentzen du ahozko lengoaiak dituen biren ondorioz, adibidez ironiak, gorrek harremantzeko dituzten zailtasunak, izan ere, giro hoiak ulertzea oso zaila da beraientzat. Ainhoa entzuleen arteko elkarrizketetan galdu egiten dela aitortu du, askotan ez molestatzearren isilik gelditzen da eta ez du solasaldian parte hartzen.

Batzuetan ondokoari galdetzen dio, baina askotan ez du erantzunik jasotzen edo oso modu laburrean azaltzen diote eta modu hartan informazio asko galtzen du Ainhoak. Entzuleek horrela jokatzearen aitzakitzat hartzen dute zeinu-hizkuntza erabiltzeko gogorik ez dut eta kasu horietan baztertuta sentitzen da Ainhoa. Lourdesek dioen bezala, komunikazioa benetakoa ez denean, pertsona gorraren isolazioa iritsi daiteke.

Honen ondorioz, Mireya azaldu bezala, zeinu-hizkuntza erabiltzen dute gorrek nerabezarotik aurrera beraien artean taldekatzen hasten dira, Ainoaren esanetan entzuleak ez daudelako prest gorren egoerara moldatzeko eta esaldiak errepikatzen ibiltzeko. Ainoak nabarmentzen duenez garrantzi handia du gorrek beraien identitatea garatzea. Nerabezaroan batez ere inplantatuak eta audifonoak dituztenak ez dira guztiz ez gorren munduan ez entzuleen munduan gustura sentitzen. Beraz, gorren identitatea garatzeak hortan lagunduko die.

Gizartearentzat gorrak pertsonak hotzak direla, aldiz Ainhoak dio entzuleek oso pazientzia gutxi dutela. Ainoak dioen bezala, entzuleak ez dira gorren beharretara moldatzen, esate baterako, azken urteetan Covid-19 egoeraren ondorioz musukoen erabilera gorren komunikazioan oztopo handia izan da, gainera askotan entzuleak kexatu egiten dira elkar ulertzeko musukoa kentzen badu norbaitek, guri antzerki tailerrean gertatu bezala. Tabernak ere komunikazioa oztopatzen duen eremua dira, bertan argi gutxi eta zarata handia baitago.

Mireya zein Ainoak aipatzen dute gorrek informazioa eskuratzeko zailtasunak dituztela, azken finean entzuleok nahigabe bada ere ikasi egiten dugu entzuten dugun bitartean. Aldiz, Ainoaren arabera, gorrei azalpen zuzenak eman behar zaizkie, eta hau askotan ez da egiten. Esate baterako, hainbat espazioetan megafoniatik adierazten dira hainbat ohar, esate baterako, metroan, autobus estazioetan, aireportuetan, antzokietan, etab. Megafoniatik adierazitako informazioa ez zaie gorrei iristen. Osasun zentroetan ere, askotan medikuak kontsulta barrutik deitzen ditu pazienteak, Ainhoaren kasuan ez daki noiz iristen den bere txanda. Nahiz eta bere ohiko medikua izan, ahaztu egiten du Ainhoa gorra dela, beraz, medikura doan bakoitzean, aurretik gorra dela abisatu behar du medikua bere bila ateratzeko.

Mireyak azaltzen du gaur egungo telefonoak gorrentzat baliabide ikaragarria dela, izan ere, informazioa eskuratzeko tresnatzat erabili ez ezik, egunerokotasuneko bizitzan lagundu die. Lehen norbaitekin gelditzeko azkenekoz ikusi zirenean gelditzen ziren, norbaitekin topatzeko esperantzarekin ateratzen ziren kalera edota familiar entzule baten

menpe zegoen gorra. Oraingo mugikorrek aldiz, autonomia gehiago eman die eta edozeinekin komunikatu daitezke hurarekin.

Bestalde, pertsona gorrek aisialdian izaten dituzten hainbat oztopo aipatu dituzte ere. Alde batetik, kultur jardueretara duten eskuragarritasuna oso murrizta da, Ainoak zein Ainhoak zinema eta antzokia aipatzen dute. Ainhoak azaldu duenez, bere bizitza osoan, aurten 33 urterekin izan du antzerki irisgarri batera bertaratzeko lehen aukera. Zinemari dagokionez, Gasteiz osoan zinema bakarra dago non azpigituluak jartzen dituzten, baina asteartetan soilik. Gainera, azpigitulu horiek ez daude pertsona gorrentzat zuzenduak, baizik eta hizkuntza ez dakien edo hizkuntza praktikatu nahi duen entzulearentzat. Izan ere, ez daude gorrentzat moldatuak, ez da zehazten nor hitz egiten duen kolore desberdinen bidez, zaratak edo abisuak ez dira parentesi artean agertzen, etab.

Azkenekoz, hiru irakasleak ados daude gortasuna gizartean ikustezina dela, esate baterako, itsuak, gurpildun aulkiak, etab. ikusi egiten dira eta haiek laguntzeko joera du gizarteak. Baina begi bistaz ez gara konturatzen gorra nor den, eta beraz, zapalketak ere ezkutuan gelditzen dira. Gizartearen ezjakintasun hori gorrek duten bestelako oztopo bat da, Mireyak dio askotan esan diotela alfabeto daktitologikoa nahikoa dela zeinu-hizkuntzaz komunikatzeko, edota bere ikasleekin idatziz komunikatu daitekeela.

Mireyak azaltzen duenez, zeinu-hizkuntzaz, beste edozein hizkuntzaz bezala ez da letraka hitz egiten eta lexiko zein gramatika propioa duen hizkuntza da. Bestalde, bere ikasle guztiek ez dakite irakurtzen, eta beraz ezin da beraiekin idatziz komunikatu. Lourdesk dio besteen alde zuzeneko ideiak oztopo handia dela haur gorrentzat, izan ere, haur gorrengan ez sinistean, bere gaitasunak mugatu egiten zaizkie. Ainhoaren ustez, gorrek entzuleekin guztiz inkluituak egoteko, zeinu-hizkuntza ikasgai bezala egon beharko litzake etapa guztietan zehar, aldiz, Mireyak aitortzen du egungo sisteman ez dagoela denborarik klase orduetan zeinu-hizkuntza erakusteko, baita ere dio, egungo hainbat irakaslek ez dutela tresna egokirik haur gorrei iristeko.

3.3. DISEINUA

3.3.1. Beharrianak

Antzerki tailerren eta elkarrizketaren bidez egindako elkarrizketan komunitate gorraren hainbat beharrian identifikatu dira.

- Gizarte entzuleak komunitate gorrarekiko sentsibilizatzea eta pertsona gorren egoera ezagutzea.
- Pertsona gorrek haien egunerokotasunean dituzten oztopoekin bukatzea.
- Haur zein nerabe gorrek hezkuntzan izaten dituzten oztopoak konpontzeko beharra.
- zeinu-hizkuntzak pertsona gorrentzat duen garrantzia mahaigaineratzea.

3.3.2. Helburuak

Jarraian GrALaren helburuak azalduko dira, horretarako, helburu nagusia eta hiru azpi-helburu zehaztuz. Helburu hauek oinarri izango dira lanaren gainontzeko atalak osatzeko, bereziki, marko teorikoa eta ikerketa burutzeko galdetegiak.

Helburu nagusia:

Komunitate gorrek egunerokotasunean zein hezkuntza sistemaren barnean jasaten dituen oztopoak zein zapalketak identifikatzea, zapalketa horiei irtenbideak bilatzeko helburuarekin. Konponbide horiek Antzerki Foro baten bidez honen inguruan eztabaidatuz eta eszenan frogatuz sortuko dira, desorekarik gabeko eta inklusioaren aldeko gizarte bat lortu nahian.

Helburu zehatzak:

- Pertsona gorren parte hartzea ahalbidetzea, haiei entzutea eta beraien egoera ulertzea.
- Haur gorrek hezkuntza sisteman duten egoera behatzea eta eskola eremuan dituzten zailtasunak identifikatzea.
- Haur zein heldu gorrek erlazionatzeko eta komunikatzeko dituzten baliabideak eta oztopoak aztertzea.
- Pertsona gorrek gaur egungo gizartean guztiz modu inklusiboan bizi daitezen proposamen desberdinak eskaintzea eta jasaten dituzten zapalketei irtenbideak bilatzea, konponbide desberdinak bilatuz, entseatuz eta eszenak errepikatuz.

3.3.3. Metodologia

Esku-hartzean, komunitate gorrek haren egunerokotasunean zein hezkuntza sistemaren barnean jasaten dituen zapalketen inguruan hausnartuko da Antzerki Foro baten bidez (ikusi 9. eranskina), marko teorikoan azaldu bezala Augusto Boal izanik antzerki

metodo honen aitzindaria. Antzerki Foroaren antzezlana, diagnostikoan jasotako informazioaren bidez sortu da.

Antzerki Foroaren metodologiak, zuzenean aztertzen ari garen komunitate zapalduari emango dio ahotsa, kasu honetan komunitate gorrari. Horretarako, antzezlana eta gero eztabaidatzeko eta iritziak partekatzeko aukera egongo da. Baita ere, gorrek jasaten dituzten oztopoen irtenbideak bilatzeko ere. Antzerkia Foroa pertsona gorrentzat sortua izan da bereziki, hori horrela, zeinu-hizkuntza izan da erabili den oinarritzko hizkuntza.

3.3.4. Antzezlana, foroa eta baliabideak

Antzerki Foroaren egitura

Antzerki Foroaren abiapuntua komunitate gorraren zapalketak agerian jartzen dituen antzezlana izango da, antzezlanaren zehar ikusitako zapalketek eztabaida abian jarriko dutelarik.

Hala ere, ikusleak hasieratik aktibo egoteko eta giro eroso eta zein konfiantzazkoa sortzeko, antzezlana baino lehen bestelako jolas bat proposatu da (ikus 12. eranskina). Jarduera hau, pertsona gorrentzat zein zeinu-hizkuntza ez dakiten pertsona entzuleentzat aproposa izan behar denez, hizkuntza guztiak alde batera utzi ditugu eta gorputza izan da jolasteko tresna. Hau da, aktore zein ikusle guztiak espaziotik ibiltzen hasiko dira, betiere partaide batek egiten dituen mugimendu guztiak koptatuz. Bestelako parte hartzailearen batek huts egitean, aurrekoari koptatzeari utzi eta huts egiten duenari koptatuko zaio. Ondoren, eredutzat jarraitzen ari garen partaidearen mugimenduak koptatu ordez, kontrako mugimendua egin beharko da.

Behin jolasarekin bukatu, antzezlanari hasiera emango zaio aurkezpen baten bidez. Antzezlanak (ikus 12. eranskina) antzerki tailerretan jasotako bizipen errealen zein elkarrizketetan jasotako informazioaren isla da.

Antzezlanean familia gor batek bere egunerokotasuneko eremu desberdinetan jasaten dituen oztopoak ageri dira. Antzezlanaren zehar, komunikazio oztopoa era zein espazio desberdinetan eman da: osasun-zentroan medikuak kontsulta barrutik garrasiko deitzean pertsona gorra, telefono deien bidez pertsona gorrarekin harremantzen saiatzean, kalean bizkarrez pertsona gorrari hitz egitean edota eskolan musukoarekin hitz egitean pertsona gorrarekin.

Honez gain, bestelako bidegabekeri azaldu dira, besteak beste, pertsona gorrek zinemara joateko duten aukera falta, haur gorrek hezkuntzan giza-baliabideak izateko dituzten oztopoak edota osasun kontuekin duten pribatutasun eza.

Besteak beste, komunitate gorraren aurka erakusten diren zapalketak honakoak dira:

- Entzuleekin komunikatzeko edo harremantzeko zailtasunak: 1, 3, 4, 5, 6 eta 7. agerraldietan
- Informazio falta: 1, 2, 4, 5, 6 eta 8. agerraldietan
- Osasungintzan oztopoak: 1, 3, 5, 7 eta 8. agerraldietan
- Aisialdian oztopoak: 2. agerraldian
- Hezkuntzan oztopoa: 4 eta 6. agerraldietan

Familia ama batek eta bere bi alabek osatzen dute, hirurak gorrak direlarik. Alabak, biktima hutsak dira, ez baitute baliabide nahikorik haien burua defendatzeko, eta amarengana jotzen dute laguntza eske. Protagonista edota zapaldua familiaren ama izango da, berak jasaten dituen zapalketei zein bere alabek jasaten dituzten zapalketei aurre egiten saiatzen baita, irtenbiderik aurkitu gabe. Amak zama handia darama, zapalketak une oro jasaten ditu, hori horrela guztiz bakarrik sentitzen da.

Antzezlanaren bukaeran amak, bere bakardadean, bere buruarekin bakarrik, bere burua besarkatzen, zaintzen eta babesten du. Bakardadea, helduei zuzendutako antzerki tailerrean landutako gaia da ere. Pertsona gorrak zein entzuleak bakarrik sentitzen gara, sentimendu unibertsala dela esan genezake, hori horrela pertsonaiarekin zapatetan denok jarri gaitzke.

Antzerkiaren oinarritzko hizkuntza zeinu-hizkuntza izan da, nahiz eta zenbaitetan ahozko hizkuntza (euskara zein gaztelania) erabili den, pertsona entzuleekin duten komunikazio oztopoa erakusteko helburuarekin.

Behin antzezlanak bukatu, elkarriketarako tartea izan dugu, non ikusleek edukiko duten protagonismoa antzerkiaren inguruan hitz egiteko, oztopo guzti horiek identifikatzeko, irtenbideak bilatzeko, edota proposatutako irtenbide horiek antzezteko ere.

Baliabideak

Antzerki Foroa aurrera eramán ahal izateko, hainbat baliabide beharrezkoak izan dira. Alde batetik, aktoreak zein ikusleak ezinbestekoak izan dira: aktoreak, zeinu-hizkuntza ikasten ari diren pertsona entzule dira, ikusleak aldiz, pertsona gorrak zein entzuleak.

Baliabide materialei edo ekonomikoei dagokionez, Antzerki Foroa espazio pribatu batean eramán da aurrera, eta atrezzoaren denon artean prestatu dugu, hainbat gauza erositako eta beste zenbait berrerabiliz:

- Kamera eta tripodea
- Ikusleentzat alfonbra
- Mahaia
- Hiru aulki
- Hiru kuxin handi (sofa)
- Buruko kuxina
- Edredoiak
- Bi motxila
- Liburuak
- Telebistako mandoa
- Hiru mugikor
- Paperak eta boligrafoak
- Boligrafoen ontzia
- Pertsonaia bakoitzaren jantziak (txaketak, mantalak, betaurrekoak, etab.)

Honez gain, aipatzekoa da bozgoragailu bat beharrezkoa izan dela, honen bidez ikusle gorrek antzerkiaren zehar gertatzen diren telefono deien berri jasotzeko bozgoragailuaren bibrazioaren bidez. Mugikorrek norbaitek deitzean linternaren argia pizten du, baina eguzkiaren ondorioz argi hori ez da gehiegi nabaritzen, beraz bozgoragailuaren baliabidea erabili dugu ere. Horrela, mobilak egindako argiarekin zein bozgoragailuaren bibrazioarekin, ikusle gorrek antzezlanaren zeharreko telefono dei guztien berri jasotzeko.

3.4. ESKU-HARTZEAREN EBALUAZIOA

Behin esku-hartzea aurrera eramán, prozesu osoaren ebaluazioa egingo da, hau da, antzerki tailerren eta elkarrizketen zein Antzerki Foroaren emaitzaren balorazioa. Horretarako, jardueren orden kronologikoa jarraituko dut.

Antzerki tailerren zein elkarrizketen helburua, Antzerki Foroaren antzezlanaren sortzea dela kontuan harturik, antzerki tailerrak tresna eraginkorragoa izan dira, pertsona gorren bizipenen adibide zehatzak ageri izan direlako modu zuzen eta argian. Gainera, adin desberdinetako tailerrak egitean, egoera desberdinak bizitzen ari diren pertsonen bizipenak bildu ahal izan dira eta haurrek zein helduek eduki dute besteekiko dituzten berdintasun ezak adierazteko aukera.

Elkarrizketen bidez, informazio eta datu desberdinak jaso dituzte, egunerokotasunean zein hezkuntzan komunitate gorra jasaten dituen oztipoetatik, eremu horietan eskaintzen zaizkien baliabide desberdinetara (ikus 9. eranskina). Bertako hainbat gertaera eszenak osatzeko erabili dira, baina batik bat, elkarrizketen bidez haur gor desberdinek hezkuntzan bizi dezaketen egoera edota topatu ditzaketen zailtasunak gurea ekarri dira.

Antzerki Foroari dagokionez, esperientzia guztiz desberdina izan da, izan ere, antzezleen eta ikusleen arteko gertutasuna eta elkar-ulertzea izan dira nagusi. Informazioa eszenatokitik ikusleetara soilik joan ordez, ikusleetatik eszenatokira edota ikusleetatik ikusleetara joan da ere. Hau da, denok parte hartzeko eta ikuspuntu desberdinak plazaratzeko aukera izan da.

Bertan zeuden hainbat pertsona entzuleentzat, pertsona gorrekin kontaktua zuten lehenengo aldia izan da, hori horrela antzezlanaren egin aurretik proposatutako jolasa lehen kontaktu hori errazteko balio izan du. Nahiz eta elkarren artean ezezagunak ziren pertsona desberdinek parte hartu, oso erosoak izan da hasieratik. Antzezleentzat ere, urduritasunak alde batera uzteko balio izan zuen ikusleekin kontaktuan egotea.

Antzezlanaren zehar pertsona gorrek eta entzuleek oso jarrera desberdina izan dute. Pertsona gorrek beraien konfort-zonan egon dira eta pertsona entzuleak baino parte hartzaileagoak izan dira ekitaldi osoan zehar. Orokorrean pertsona zapalduak, kasu honetan, gorrek, ez dira hainbat eremutan protagonistak izaten, baina Zapalduen Antzerkiak eta Antzerki Foroak hau ahalbidetzen du. Azken finean, beraien zuzenean eragiten dien gai bat landu da, honen inguruan hausnartzeko ohitura dutenez, gaia kontrolatzen dute. Pertsona entzuleek aldiz, ez dute hainbesteko kontrola edo informazioa komunitate gorren inguruan eta beraz, bigarren plano batean gelditu dira.

Ikusle gorren barreak eta beraien arteko interakzioak ugariagoak izan dira antzezlanaren zehar, eta antzezlanaren eta geroko solasaldian ere, hitza beraiena izan da

gehienbat. Adierazi dutenez, agerraldi guztietan oso identifikatuak sentitu dira, beraien egunerokotasunean bizitzen dituzten egoerak agertu baitira.

Pertsona entzuleek esanetan, antzezanaren oinarrizko hizkuntza zeinu-hizkuntza izanik, zenbait elkarrizketa ez dituzte ulertu eta zenbait informazio ez zaie iritsi, aldiz gorputz adierazpenak eta ahozko hizkuntzaren zertzeladek testuingurua ulertzen lagundu die. Antzerkia transmititzeko tresna gisa oso boteretsua da; antzerkirik gabe, hau da, zeinu hizkuntza hutsean, pertsona entzuleek ez lukete adierazitakoa ulertuko.

Entzuleei, antzezanaren zehar ikusitako zapalketak izendatzea gonbidatu zaie, besteak beste, gorrek zapalketa guzti horiek oso barneratuak dituztelako eta entzuleek jaso dutena ikusteko. Zapalketa gehienek adibideak aipatu dituzte, besteak beste, Lehen Hezkuntzako haurrek interpretea izateko aukera eza, medikuak kontsulta barrutik garrasika deitzea paziente gorra, kaletik pertsona entzuleak gorrarekiko izaten duen jarrera oldarkorra, musukoa komunikazio oztopo gisa, etab.

Parte hartzaile gorrek aipatutako egoera guzti horien bizipen pertsonalak azaldu dituzte, izan ere, ezezagunek askotan egin die garrasi gorra izateak dakarrenaren ezjakitasunaren ondorioz; medikua haiekin telefonoz komunikatzen saiatzen da uneoro eta askotan gurasoen "laguntza" behar izaten dute haien autonomia zein pribatasuna mugatuz; irakasleek ez dute zeinu-hizkuntzarik jakiten, eta haur gorren hezkuntza ez da kalitatezkoa izaten; etab.

Oztopo horien inguruko irtenbideak bilatu ditugu, pertsona gorren beharrak entzunez eta horietan oinarrituz. Esate baterako, medikua eta paziente gorrak elkarrekin komunikatzeko, posta elektronikoz edota whatsapp bidez egin daiteke. Hezkuntzari dagokionez, ikasle gorrek zeinu-hizkuntzaz dakien irakaslea behar dute, edota bigarren aukera gisa komunikazio-bitartekaria; izan ere, interpretearen funtzioa objektiboki itzultzea da, baina haur gorrek ez dute hainbat zeinu, hitz eta kontzeptu ulertzeko gaitasunik. Irakaslea edo komunikazio-bitartekaria berriz, haurren hezkuntzan inplikatzeko da, eta elkarrizketak itzultzeaz gain, haur gorrek bere ingurua ulertzeaz eta izan ditzakeen zailtasunetan laguntzeaz arduratzen da. Horietako irtenbide batzuk, eszenan frogatu ditugu (ikusi 12. eranskina).

Laburbilduz, Antzerki Foroaren oinarrizko hizkuntza zeinu-hizkuntza izanik, ikasle gorrek ez dute komunikazio oztoporik eduki eta beraiantzat testuinguru guztiz erosoan izan da. Gorrek, ahozko hizkuntza nabarmentzen den egunerokotasunean duten komunikazio

oztopo hori, pertsona entzuleek izan dute kasu honetan. Hori horrela, ikusle entzuleek gorren zapatak jantzi eta komunitate gorraren ikuspuntutik bizi izan dute Antzerki Foroa. Beraz, nahiz eta pertsona gorra zein entzuleak parte hartu modu homogeenan, gorrek izan dute protagonismoa. Ekitaldi hau komunitate gorraren inguruan izanik, beraien errealitatea da, eta beraz, beraiek dira bizitzen dutenaz eta dituzten beharren inguruan dakitenek, pertsona entzuleok bideolagunaren papera hartu behar dugu kasu honetan.

4. ONDORIOAK

Esku-hartzea praktikara eraman ondoren, hainbat ondorio atera daitezke zenbait adituren hitzetan oinarrituz eta ezarritako helburuei erantzunez. Diagnostikoaren zehar egindako antzerki tailerrak eta elkarrizketak behatuta, hasteko aipagarria da, gor komunitateak entzuleok jasaten ditugun bestelako oztopoak bizitzen dituztela ere, besteak beste, arrazakeria, LGTBifobia, matxismoa edo bullyinga bezalakoak.

Gortasunak hainbat oztopo dakartza, baina gorra izan aurretik, pertsonak dira, eta gizartean ere bestelako zapalketak daude. Askotan ikuspuntu paternalista baten ondorioz, pertsona zapalduak ez du erantzuten gizarteak espero duen bezala, kasu honetan antzerki tailerretan gertatu den moduan gortasunarekin zerikusia ez duten egoerak antzetzan. Esate baterako, lanean zehar bakardadea errepikakorki agertzen den kontzeptua da, eta pertsona gorra bakarrik sentitu daiteke bere gortasunak eragin dion bazterketaren ondorioz, baina baita ere, beste arrazoi askorengatik: pertsona bat galtzearen ondorioz, emigratu beharrezatik, etab.

Gor komunitatearen egoera entzuleon gizartearen ezjakintasunaren ondorio dela argi gelditzen da, OMSen (2021) arabera, pertsona gorra gaixotzat hartzen dira, komunitate honek gutxieneko kulturala osatzearen ondorio (CNSE). Komunitate gorra entzuleon begi bistan ez dagoen ezaugarria eduki ez ezik, entzuleon begi bistan ez dauden zapalketak jasaten dituzte, besteak beste, komunikazio oztopoa. Torresek (1999) azaldu bezala, gizartearen ezezagutzak, entzuleen eta gorren arteko inkomunikazioa dakar, modu honetan pertsona gorra baztertuak sentitzen direlarik.

Komunikazioaren oztopoak beste hainbat traba dakar, besteak beste, harremantzeko zailtasunak, informazio falta, etab. Hauek guztiak hainbat eremu desberdinetan ematen direla ikusi izan dugu, esate baterako, kalean, osasun-etxean, eskolan, etab. Hau da, pertsona entzule batekin harremantzeko beharra dagoen edozein eremutan. Aldiz, CNSEk 2002. urtean hala aitortu zuenez, komunikazio traba horren irtenbide dugu zeinu-hizkuntza.

Oztopo komunikatiboek, sozializazioan eta nortasunaren eraketan eragin dezake (CC.OO. de Andalucía). Haur gorrek hezkuntzan duten komunikazio zailtasuna edota informaziora iristeko trabari aurre egiteko, giza-baliabideak erabiltzen dira: logopedak, interpreteak, PTak, etab. Baina, laguntza hau guztiz asistentziala eta puntuala da, gorraren bizitzako esparru oso zehatz batzuen epe laburreko konponbide baita. Sostengua denboran luzatzen denean giza-baliabidearekiko komunikazio-mendekotasuna sortzen da, hain zuzen, hirugarren pertsona batekiko beharra eta pertsonaren autonomia ukapena.

Gainera, CNSEk (2002) zein Suárez, Rivas, eta Caballerok (2021) egiaztatu bezala, komunitate gorra anitza eta heterogeneoa da, baina giza-baliabide horiek ez dira haur gor bakoitzaren gaitasunen arabera eskaintzen, baizik eta haurraren adin tartearen arabera baliabide bat edo beste dagokiola. Kasu askotan, haur gorrek ez dute interpretea ulertzeko gaitasunik, hainbat kontzeptu ulertzen ez dituztelako. Horregatik, hainbat kasutan interpretearen ordez, komunikazio bitartekaria izango litzake aukera eraginkorragoa.

Aldiz, haurraren irakasleak zeinu-hizkuntza jakinez gero, hein handi batean informazioa edo ezagutzak jasotzeko oztopoa desargertuko litzake. Baina, zeinu-hizkuntza ikastea ez dago irakasleek jasotzen duten formakuntzaren barnean, ezta haurren hezkuntzaren ikasgaien tartean ere. Beraz, kasu gehienetan, zeinu-hizkuntzaz komunikatzen diren haur gorren eta kideen zein irakaslearen arteko komunikazioa ez da kalitatezkoa izaten. Haur gorrek kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea dute, hori bermatzeko, jasotzen duten hezkuntza elebiduna izan behar da. CNSEk 2002an hezkuntza elebidunaren gidan adierazten denez, zeinu-hizkuntzari zein gorren kulturari, bertako ahozko-hizkuntzari zein kulturari ematen zaion trataera berdina ematean dago gakoa. Honek, haur gorraren identitatearen eraketan positiboki erango duelarik (CNSE, 2002; Montero, 2014; Suárez, Rivas, eta Caballero, 2021).

Prozesu osoaren zehar antzerkia izan da tresna nagusia, bereziki Zapalduen Antzerkia eta Antzerki Foroa. Antzerki metodo hau, gai desberdinen inguruan eztabaidatzeko zein gizartean zapalduak dauden kideak entzuteko eta desberdintasun egoerei aurre egiteko oso eraginkorra da. Zapalduen Antzerkia Augusto Boalek sorturiko eta gizarte eraldaketa helburu duen antzerki pedagogikoa da (Gavilanes eta Astudillo, 2016); beraz, bertan sortzen diren zapalduaren irtenbideak, praktikara eraman daitezke modu esanguratsu batean gizartea aldatzeko asmoz.

Parte-hartzaile gorrei, antzerki tailerrek zein Antzerki Foroak ongizatea, barreak eta protagonismoa eman dizkie. Hau da, antzerkiak beraientzat inguru seguru bat sortzeko balio izan du, eta ingurune horretan ahaldundu egin dira eta entzun egin zaie.

5. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lan hau aurrera eramateko izan ditudan mugetatik hauek nabarmen ditzaket: proiektuan parte hartzeko gortasuna duen jendea ezagutzea, Antzerki Foroan behar izan den atrezzoaren dirulaguntza eza eta parte hartu duten pertsona desberdinen ordutegiak bat etortzeko zailtasunak.

Gainera, antzerki tailerrak zein Antzerki Foroa aurrera eramateko beharrezkoa den espazioari dagokionez ez dut erraztasunik eduki. Izan ere, fakultateko azpiegiturak erabili ahal izatearen esperoan, eskaera ukatu zait. Hori dela eta, antzerki-tailerrak ASPASOR elkartearen laguntzari esker Judimendiko Gizarte Etxean, eta Antzoki Foroa espazio pribatu batean egin ditut.

Bestalde, hobekuntza proposamen gisa, ekimenean pertsona gor gehiagoren parte hartzearekin lana aberasgarriagoa izango litzakelakoan nago, hau proiektua zabaltzeko baliabide ekonomiko egokiekin lortu ahal izango litzake.

6. ERREFERENTZIAK

Aimard, P. eta Morgon, A. (1989). *El niño sordo*. Narcea.

Barauna, T. eta Motos, T. (2009). *De Freire a Boal. Pedagogía del Oprimido. Teatro del Oprimido*. Ñaque.

Becerro, L. eta Pérez, M. C. (1989). *Educación del Niño Sordo en Integración Escolar*. UNED.

Boal, A (1980). *Teatro del Oprimido*. ALBA.

Boal, A. (2002). *Juegos para actores y no actores*. ALBA.

CC.OO. de Andalucía (2010). La deficiencia auditiva. *Revista digital para profesionales de la enseñanza*, (10).

Confederación Estatal de Personas Sordas (2002). *Guía de educación bilingüe para niños y niñas sordos*. Hemendik eskuratua: <https://www.cnse.es/index.php/personas-sordas>

Confederación Estatal de Personas Sordas (2011). *Sordo ¡y qué! Vida de personas sordas que han alcanzado el éxito*. Lo que no existe.

- Federación Andaluza de Asociaciones de Sordos (2004). *Un viaje por la historia de la comunidad sorda*. FAAS.
- Forcadas, J. (2012). *Praxis del Teatro del Oprimido*. Editorial Imprenta MRR.
- Freire, P. (1968). *Pedagogía del Oprimido*.
- García-Romeu, B. I. (2014). *El teatro participativo como herramienta pedagógica de sensibilización con las personas con discapacidad intelectual*.
- Gavilanes, P. et al. Astudillo, A. (2016). *Teatro del Oprimido de Augusto Boal: Un análisis como herramienta metodológica*.
- Jaramillo, M. (2020). El Teatro del Oprimido para la construcción de una escuela democrática. In Díez, E. J. et al. Rodríguez J. R. (ed.), *Educación para el Bien Común. Hacia una práctica crítica, inclusiva y comprometida socialmente* (791-805. or). Octaedro.
- Montero, M. (2004). Introducción a la psicología comunitaria. Desarrollo, conceptos y procesos. Editorial Paidós.
- Organización Mundial de la Salud (2021). *Sordera y pérdida de la audición*. Hemendik eskuratua:
<https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/deafness-and-hearing-loss>
- Pedrosa, B., et al. Cobo, E. (2017). Inclusión del alumno con discapacidad auditiva en el aula de educación especial. *Voces De La Educación*, 2(4), 112-121.
- Santos, B. (2016). *Teatro del Oprimido. Raíces e asas. Uma teoría da Praxis*. Ibis Libris.
- Suárez, L., Rivas, N. & Caballero, E. (2021). Comunidad sorda: aproximación a su cultura en el área metropolitana. *Revista Inclusión y Desarrollo*, 8 (2), 54-64 or.
- Tejerina, I. (2005). *La Educación en Valores y El Teatro. Apuntes para una reflexión y propuesta de actividades*. Biblioteca virtual Miguel de Cervantes. Hemendik eskuratua:
<http://www.cervantesvirtual.com/obra/la-educacin-en-valores-y-el-teatro-apuntes-par-a-una-reflexin-y-propuesta-de-actividades-0/>
- Torres, B. (1999). *La comunidad Sorda*. ISEP.

8. ERANSKINAK

1. eranskina: Haur eta nerabeen antzerki tailerraren kartela



ANTZERKIA EGIN NAHI ?
ANTZEZLE IZATERA ANIMATU !

ANTZERKI TAILERRA

A d i n a ? 10-18 urte

N u n ? JUDIMENDIKO GIZARTE ETXEAN

N o i z ? OTSAILAK 5 LARUNBATA

O r d u a ? 16:00 - 19:00

ANIMATU!! →  605 710 026


aspasor
Arabako Gorrien Guraso eta Lagunen Elkartea
Asociación de Padres, Madres y Amigos
de las Personas Sordas de Álava

2. eranskina: Helduen antzerki tailerraren kartela

ANTZERKI TAILERRA

HELBURUA: Pertsona gorren oztopoak ikustarazi antzerkiaren bidez

Nun? JUDIMENDIKO GIZARTE ETXEAN

Noiz? OTSAILAK 5 LARUNBATA

Ordua? 10:00 - 13:00

ANIMATU!! →  605 710 026


aspasor
Arabako Gorren Guraso eta Lagunen Elkarte
Asociación de Padres, Madres y Amigos de las Personas Sordas de Álava

3. eranskinak: A. galdetegia: pertsona gorrarentzat galderak

1. Zure burua aurkeztu dezakezu?
2. Gorrak zaren aldetik, zein da zure ama hizkuntza? Zein beste hizkuntza dakizkizu?
3. Gizartean oztoporik duzu gorra izateagatik? Zure egunerokotasunean?
4. Noizbait baztertua sentitu zara gorra izateagatik?
5. Nolakoa izan zen zure esperientzia eskolan?
6. Zure ikaskideekin nola komunikatzen zinen?
7. Izan zenuen giza-baliabiderik edo baliabide materialik laguntza gisa?
8. Zerbait somatu zenuen faltan? Eskaini ez zizuten zerbait agian?
9. Zer behar duzu pertsona gor bezala gizartean guztiz inkluitua sentitzeko?

4. eranskina: B. galdetegia: profesionalentzat galderak

1. Zure burua aurkeztu dezakezu?
2. Zertan egiten duzu lan?
3. Pertsona gorrekin lan egiten duzu, zer nabarmenduko zenuke?
4. Nola komunikatzen zara beraiekin? Guzkiekin berdin komunikatzen zara?
5. Pertsona gorrak izateak hainbat arazo/oztopo izatea dakar? Zein eremutan? Haien egunerokotasunean, hezkuntzan...?
6. Zein beste baliabide dituzte egunerokotasunean? Eta hezkuntzan giza-baliabiderik edo baliabide materialik dute? Eta familiaek laguntzarik dute?
7. Zer uste duzu behar dutela pertsona gorrek guztiz gizartean integratuak sentitzeko?
8. Hezkuntzak zerbait egin dezake edo nola lagundu dezake horretan?

5. eranskina: Lourdes Laisecaren elkarrizketaren transkripzioa

Buenos días, ¿podrías presentarte?

Soy Lourdes Laiseca, soy una profesional de la educación, soy maestra especialista en educación especial y en Audición y Lenguaje. Llevo 44 años trabajando en el mundo de la sordera y mi trayectoria profesional se ha desarrollado fundamentalmente en el centro específico, en el colegio La Purísima para Niños Sordos de Zaragoza, aunque soy de Bilbao. A lo largo de estos años he trabajado con las personas sordas en todos los niveles, tanto en atención temprana, como en infantil, primaria, secundaria o en formación profesional.

Trabajas con personas sordas, ¿qué parte de tu trabajo subrayarías?

La mayor parte de mi trabajo ha sido sobre todo dotar de estrategias comunicativas a la persona sorda y de normalizar esa relación de la persona sorda con su entorno social; sea escolar, familiar o de amigos.

La parte más bonita de mi trabajo probablemente haya sido la dedicada a la atención temprana y al trabajo con las familias; familias que mayoritariamente han sido familias de padres normoyentes, pero también familias de padres sordos con hijos sordos. Yo creo que esa es la parte más bonita, porque es cuando se inicia todo.

¿Cómo te comunicas con las personas sordas? ¿Con todas de la misma manera?

A lo largo de todos los años que llevo trabajando, la situación de la persona sorda ha cambiado mucho. De todas formas, he sido yo la que me he adaptado a las necesidades del individuo, porque cada niño y su entorno tiene unas necesidades muy diferentes. Por ejemplo, no es lo mismo un niño que viene de un país extranjero, con 10 o 12 años, con una mudéz absoluta, con unas estrategias comunicativas muy pobres porque incluso no ha estado escolarizados; esa situación no tiene nada que ver con un niño que nace aquí en el Hospital de Cruces y que a los 3 días ya le han diagnosticado la sordera y que cuando tiene menos de un mes ya se está trabajando con él.

Yo siempre he tenido y tengo una mentalidad flexible de aquel que quiere estar en acompañamiento; yo nunca he trabajado dando consejos, yo no soy una vendedora de consejos; yo lo que he hecho siempre es acompañar a esa persona que nace con sordera y a la vez a acompañar a su entorno, tanto su entorno escolar o familiar.

Mi experiencia es muy amplia, porque en un colegio específico cómo es el nuestro de Zaragoza, hay niños desde la atención temprana hasta gente que está en formación profesional. Entonces el espectro es muy amplio y por eso creo que poner barreras y decir que la comunicación tiene que ser de una forma concreta, ya sea, oral, gestual o bimodal yo no lo creo. La experiencia me ha dicho que tengo que estar con una mente abierta, receptiva y observar lo que necesita ese niño y su entorno, para poder proporcionárselo dentro de mis capacidades y conocimientos. Con lo que depende de la situación utilizo la lengua de signos (LS), el español signado y el lenguaje oral.

Mi trabajo fundamentalmente ha sido oralizar al niño, y la lengua de signos es un gran apoyo y el bilingüismo o el plurilingüismo es lo mejor que le puede pasar a cualquiera. Ojalá todos fuésemos capaces de comunicarnos en un montón de lenguas yo creo que se nos abriría la mente y entenderíamos mejor al otro.

Además si ese esfuerzo se debe de hacer en las dos direcciones. En mi cabeza no entra que se le pida el esfuerzo a una persona para la que la oralización es muy compleja, y tú no hagas ningún esfuerzo por comunicarte en una lengua que es más asequible para él, la cual sería la lengua de signos.

Por eso yo siempre he partido desde esa realidad y desde un profundo respeto, porque aunque yo sea la profesional no tengo porque saber lo que le conviene, pero sí le puedo acompañar y puedo hacer un trabajo para facilitarle el conocimiento y en este caso, el conocimiento pasa por el desarrollo del lenguaje. He tenido niños bilingües, tengo compañeras sordas que fueron mis alumnas y que son bilingües, y para mi eso es un gran orgullo y un gran logro tanto personal como de la institución en la que trabajo.

¿Las personas sordas qué obstáculos tienen en su día a día?

El primer obstáculo es que la familia está preparada para tener un niño como los demás, pero cuando de repente les dicen que el niño tiene un problema, cosa que se puede extrapolar a cualquier otro hándicap, la familia se colapsa porque todos tenemos miedo a lo desconocido. En la sociedad también somos todos muy solidarios pero a veces tenemos miedos, por ejemplo el miedo de no estar a la altura de lo que el otro necesita.

Creo que ese es el primer obstáculo porque un niño se ve reflejado fundamentalmente en los ojos de sus progenitores, y si tú cuando te miras en los ojos de tus padres ves angustia, decepción, etc. Al final cada persona se ve reflejada en lo orgullosos que están sus padres o en los reproches que le hacen. Entonces, la imagen de ti misma se va forjando en la mirada de los demás, esto es el efecto Pigmalión.

No se trata de que todos aprendamos lengua de signos ni que nunca vayamos a hablar en lengua de signos y que la oralización sea la única vía de comunicación. No se trata de eso, porque el encuentro de dos personas es cuando las dos salimos de dos puntos equidistantes, y las dos nos movemos hasta que nos encontramos.

Con lo que yo creo que el mayor hándicap que se encuentra una persona sorda es la ignorancia y el desconocimiento de los demás. Si la familia no se preocupa de enterarse lo que supone la sordera y lo que no supone la sordera; la familia parte del desconocimiento, miedo y frustración. Parte de mi trabajo ha sido decirles a las familias con qué vamos a tener que lidiar y que se olviden de de todo lo demás. Hay familias que recién nacido el niño o niña, ya te pregunta ya te preguntan lo que podrá estudiar.

El hecho de ser una persona sorda ni limita, ni no limita. Si los padres quieren que el niño sea cantante de ópera, sabemos que lo tiene muchísimo más difícil que los oyentes, pero bueno a partir de ahí todo lo que vaya a hacer dependerá en gran medida de él mismo. Al igual que en tu caso ha dependido de ti y de las posibilidades de tu entorno social, como te animan, como te miran, como te aplauden o no. Tú eres quién eres, porque vienes de un pasado y serás porque ahora eres y porque antes fuiste. Por eso creo que hay que desmitificar todo esto, porque para mí el mayor problema son ideas preconcebidas que tenemos sobre un problema como puede ser la sordera u otros campos.

¿En el ámbito educativo qué obstáculos tienen?

Yo creo que también esto ha ido cambiando con el tiempo, si yo miro el niño sordo de cuando empecé, no tiene nada que ver con el niño sordo de ahora. Pasa lo mismo con el reto de la tecnología, en general las personas queremos hacer y seguir haciendo lo que ya sabíamos y ya hacíamos, y de esta manera nos autolimitamos. Creo que es importante tener la mente abierta a nuevos retos y seguir aprendiendo continuamente. Ahora es más fácil porque el profesorado mentalmente está más preparado para asumir todo el proceso de la inclusión, ya que quienes salís de las facultades de Educación, dais por hecho que vais a tener en el aula alumnos muy diferentes, entonces yo creo que en ese aspecto hemos avanzado mucho.

Por lo demás no es tanto tener un dominio o no de la lengua de signos, sino que es tener una mentalidad de que tú puedes ayudar a ese alumno y ser consciente de que tienes que preocuparte de conseguir herramientas que te faciliten ese acompañamiento a ese alumna o alumno. También es verdad que la mayoría de los niños sordos se implantan a edades muy tempranas y entonces tienen un acceso a la oralidad muy temprana, con lo que tienen unas habilidades orales muy bien desarrolladas.

Por el propio equilibrio de los niños y por su propio futuro, yo soy partidaria de que esos niños tengan acceso a la lengua de signos.

¿Qué recursos o ayudas tienen? En edades tempranas no hay servicio de intérprete, ¿por qué?

La manera en la que se desarrollan las clases no lo propicia, porque tanto en el profesor como la profesora de infantil y de primaria tienen una distancia muchísimo menor con el alumno que a partir de secundaria. Es decir, conoce mejor a los alumnos, las asignaturas están más globalizadas, normalmente se trabaja por proyectos. En secundaria lo que ocurre es que cada profesor llega, da su asignatura en 50 o 55 minutos y no hay ese tiempo para atender al alumno individualmente; el profesorado de secundaria es más difícil que tengan esa mentalidad que te decía yo antes. En infantil y en primaria el profesorado tiene una mayor posibilidad de adaptarse y de buscar más recursos. Los profesores de apoyo, los AL o PT-s están más focalizados a esas edades, mientras que en secundaria es “sálvese quien pueda” y por eso el papel del intérprete es fundamental sobre todo si el alumno o la alumna es usuario de la lengua de signos.

Lo que está claro es que cualquier persona que trabaje con alumnos sordos tiene que tener conocimientos de la LS. Aunque es verdad que muchos niños están oralizados y que no conocen la LS, porque no es lo mismo en un centro como el mío, que somos bilingües, o un centro en el que todo el entorno es oral.

Además hay alumnos con sordera que tienen otros handicaps asociados, ya sea déficit de atención, dislexia, disfasia, etc. Estas patologías antes del implante no se podían diagnosticar, porque todo se achacaba a la sordera, pero hoy en día tenemos herramientas de atención temprana y la detección precoz de estas otras añadidas es muy importante en estos chicos y chicas.

¿En la educación los niños tienen algún otro tipo de recurso específico? Ya sea ayuda material, personal, académica...

La Frecuencia Modulada, mediante este recurso lo que el profesor dice le llega directamente al audífono o implante del niño sordo, sin distorsiones y aunque el profesor se vaya moviendo. De esta manera el alumno tiene que hacer menos esfuerzo, no tiene que estar mirando al profesor, y si tiene que mirar a una pantalla la voz del profesor le va a llegar sin distorsiones.

Recurso personal personal de apoyo, que a veces trabaja en el aula y en otros momentos saca al alumno fuera del aula y esto se vive con total normalidad, y no estigmatizan a uno diciendo que tiene que salir porque no entiende o porque no sabe, sino que ese ALE o PT está para ayudar a toda la clase, y no solo a ese niño.

Todas las herramientas pedagógicas de hoy en día (las inteligencias múltiple, proyectos, grupos de trabajo, trabajo cooperativo, rutinas de pensamiento, destrezas de pensamiento, etc.) son fundamentales a la hora de trabajar en la inclusión, porque da la posibilidad de ser flexibles y de que no estén todos los alumnos sentaditos de la misma manera y todos mirando con papel y lápiz en la mano. Esa es una muy mala manera de llegar al conocimiento, ya que solo sabemos aquello que experimentamos, no lo que nos cuentan. Lo que nos cuentan entra en una parte nuestra memoria y ya está, pero lo que nosotros elaboramos, olemos, tocamos y degustamos va directo a nuestra propia experiencia de vida. Lo que quiero decir es que hay muchas herramientas pedagógicas

Si te toca un profesor que es el típico que va la pizarra y poco más hace, poco va a transmitir, pero no al alumno o alumna sorda, sino que en general a todos. Mientras que la persona que te anima, que dinamiza el aula, que crea sinergias positivas de conocimiento, que crea en el niño expectativas de “yo puedo”, “yo sé”, “yo alcanzó” El perfil no solo profesional sino personal, requiere unos aspectos que dicen más que un aprobado.

El material didáctico se puede adaptar depende del niño, pero hay que tener mucho cuidado con el resumen porque al resumir un texto, se resume el conocimiento. Lo que hay que hacer es quitar “paja”, o depende del alumno y de otros handicaps, se puede simplificar el vocabulario, usar pictogramas, etc.

No vale sólo con decir que el niño es sordo, sino que hay que mirar las necesidades de cada alumno, yo soy partidaria de una docencia a la carta, pero no para el sordo sino que para todos.

¿A las familias/padres sordxs se les ofrece algún tipo de ayuda?

Desde el momento que se hace el diagnóstico de sordera, ya hay alguien acompañando a la familia. Las asociaciones acompañan a las familias

Es cierto que cuando nace el niño sordo o un niño “diferente” las familias tienen que pasar el proceso de un duelo que es muy largo y algunas no hacen en toda su vida.

¿Qué crees que necesitan las personas sordas para sentirse totalmente incluidas en la sociedad?

Creo que necesitan que los demás los conozcamos, que les hagamos un sitio y que no los miremos diferente, y que no tengan que hacer ellos todo el camino sino que nosotros también demos pasos y que lleguemos a esa intersección de la que te hablaba. Creo que necesitan una sociedad con una mente abierta, que vean sus necesidades; porque la sordera tiene barreras que no son visibles. Todo el mundo ayuda a un ciego a cruzar aunque no lo necesite, o todo el mundo ayuda a una persona que no entra por algún lado con la silla de ruedas; de hecho se han rebajado todos los bordillos, se pone el sonido de pajaritos en los pasos de peatones se en todas partes hay baños adaptados a la silla de ruedas, etc. En cambio para las personas sordas no se han hecho adaptaciones, salvo la ventanita que sale cuando hablan en el congreso interpretando a LS. Para quién lo necesite hay intérpretes para ir al médico, al abogado, etc. pero es un servicio carísimo, creo que estas personas tienen que poder comunicarse en LS.

Por ejemplo cuando se dan mensajes por megafonía, en el cine mandan apagar el móvil, en las estaciones de metro dicen cual es la siguiente parada, etc. esos mensajes no les llegan a las personas sordas, mínimamente podría salir por escrito. La sociedad todavía tiene mucho recorrido para mejorar.

¿La educación podría hacer algo para conseguir ese objetivo?

Sí, en principio todo pasa por la educación. Si hay muchos accidentes de tráfico, educación vial en la escuela; que hay muchos problemas de drogadicción, programas de asertividad en la escuela. La sociedad cada vez que necesita que los individuos aprendan, mira a la escuela, y es un gran error porque enseñar, enseñamos todos. Yo puedo estar en la escuela dando un mensaje y resulta que en "TikTok" sale alguien riéndose de que un ciego se ha tropezado o pegando una paliza a alguien, y ese vídeo de "TikTok" tiene un impacto infinitamente mayor que el que puedas tú como docente puedas tener durante meses hablando sobre los derechos de los demás, sobre el proceso de empatía o sobre la asertividad.

La escuela somos todos somos todos, tú cuando te relacionas con una persona sorda eres escuela, los vecinos son escuela, cómo hacemos todas las cosas hace que aprendas porque los niños aprenden, porque los niños no aprenden de lo que los adultos decimos,

sino que aprenden de lo que hacemos. Entonces, si un docente tiene un gesto de desprecio hacia el diferente lo van a captar todos rápidamente, aunque luego se pase 2 horas diciendo lo bueno que tenemos que ser todos para ayudar a ese diferente que va en silla de ruedas. Entonces generalmente aprendemos más en el currículum oculto.

6. eranskina: Mireya Artaberen elkarrizketaren transkripzioa

Kaixo, zure burua aurkeztu dezakezu?

Mireya Artabe naiz, heziketa berezia ikasi nuen eta bertan ezagutu nuen zeinu-hizkuntza. Ildo hartatik jarraitzea erabaki nuen eta zeinu-hizkuntzako interpretea izateko ikasketak zein logopedia ikasketak egin nituen jarraian.

Hasieran interprete bezala egin nuen lan Bilboko gorren elkartean, ondoren hezkuntzatik hasi nintzen lanean eta elkarteak alde batera utzi eta hezkuntzan sartu nintzen. Hasiera hasieratik egon nintzen gorrekin lanean, aurrena interprete bezala egin nuen lan, eta ondoren PT bezala egin dut lan egiten taldekatze ikastetxe batean, ez geroztik ikasle gorrekin bakarrik egoten naiz PT lanetan. Nik berez institutoan egiten dut lan, baina batzuetan eskolara joaten gara.

Pertsona gorrekin lan egiten duzu, zer nabarmenduko zenuke?

Ikasle gor horien komunikatzeko zubiak garela, nahiz eta interpretea ez izan askotan eskolan interpretearen lana egin behar izaten dugu. Azkenean, institutuaren kasuan, klaseak beste irakasle batek prestatzen ditu beraz, nik klase hori ikasle gorraren beharretara moldatzen dut, beraz, askotan interprete lanak egin behar dira. Beste batzuetan, laburpenak edo eskemak prestatu behar ditut, klasean gidatu, etab.

Nola komunikatzen zara beraiekin? Guzkiekin berdin komunikatzen zara?

Nire ikasle guztiek zeinu-hizkuntzaz dakite eta nik beraiei zeinu-hizkuntzaz egitea nahi dute, nahiz eta ondoren gehienek ahoz erantzun. Izan ere, zeinu-hizkuntzaz mezua argiago jasotzen dute, baina logopedia eta irakasleen ondorioz, ahozkoa ondo landuta dutenez, beraiek ahoz ondo moldatzen dira. Hala ere, zeinu-hizkuntzaz soilik komunikatzen diren kasuren bat dago eta ez dute ahoz hitz bat bera ere egiten.

Beste irakasleekin zein ikasleekin komunikatzeko orduan, ahoz egiten dutenek ahoz komunikatzen dira, baina zeinu-hizkuntza soilik erabiltzen duten ikasleek arazo handiak dituzte gainontzekoekin komunikatzeko. Azkenean, ez dute benetako komunikazioa ikaskideekin.

Adibidez, aurten badut ikasle gor bat, ez duela audifonirik, inplanterik, inongo entzumen arrastorik, eta gelan guztiz isolatua egoten da. Egia da, ikasle honi ematen zaizkion baliabideak beste inorri ez zaizkiola ematen, 30 klase orduatik 27 gutariko norbaitekin egoten da, bi PT eta interprete baten artean betetzen dugu ordu kopuru hori. Beraz, bere komunikazioa gure bidez izaten da, bakarrik egoten den 3 ordu horietan normalean lana edukitzen du eta bera bakarrik egoten da lanean. Baina, ez dago benetako komunikazioa.

Ikastetxean zeinu-hizkuntzako ikastaro bat jarri dugu, baina bere gelatik ikasle bakarra apuntatu da, eta pena bat da. Hasieran oso motibatuta diote ikasleek zeinu-hizkuntza ikasi nahi dutela, baina behin alfabeto daktitologikoa jakin, horrekin konformatzen dira. Baina daktitologikoa ez da nahikoa, ahoz ere ez dugu hitz egiten “k, a, i, x, o”, zeinu-hizkuntzaz erez.

zeinu-hizkuntza irakastea ez da errazten, gela orduetan ez dago aukerarik hura irakasteko, eta irakasleekin berdina gertatzen da, irakasleren batek zeinu-hizkuntza baldin badaki bere kabuz ikasi duelako da, ez baita horretan formatzeko aukerarik eskaintzen.

Pertsona gorra izateak hainbat arazo/oztopo izatea dakar hezkuntzari dagokionez?

Komunikatzeko oztopoaz gain, irakurketa eta idazketa oztopo handia da ere. Nahiz eta inplanteekin ondo moldatu eta ahoz komunikatzeko gaitasuna izan, irakurketa eta idazketan arazorik larriena izaten dute. Gaur egungo hezkuntza sistemaren oinarria testuetan dago, irakurketan eta idazketan oinarritzen da hezkuntza. Gutxi dira irakurtzeko eta idazteko gaitasun ona duten ikasle gorra, asko kostatzen zaie. PTok testu horiek guztiak egokitzen ditugu, sinpletu, ikusmen euskarriak eskaini, elementu osagarriak ematen dizkiegu klasean egiten dena osatzeko. Baina, honek suposatzen du ere besteek baina lan handiagoa egin behar dutela eta ikasleak kexaka ibiltzen dira, besteek baina zailtasun gehiago edukitzeaz gain, ariketa gehiago bidaltzen dizkiogulako.

Gero ikaslearen arabera, batzuk besteak baino gehiago sozializatzen dute. Batzuei ez zaie interesatzen besteekin sozializatzea eta beste batzuk guztiz integratuak daude gelan. Hau bakoitzaren izaeraren arabera eta familiak ematen dizkien aukeren arabera izaten da.

Nerabezaroan adibidez, gorren artean gehiago elkartzen hasten dira, bereziki zeinu-hizkuntza erabiltzen dutenek.

Egunerokotasuneko oztopoak?

Informazioa eskuratzeko zailtasunak, bereziki helduagoak direnean. Azkenean entzuleok belarriz nahigabe jasotzen dugun hainbat informazio, beraiengana ez da iristen. Nahiz eta inplanteak edo audifonoak eduki, ez badute arreta jartzen gauza asko galdu egiten dituzte. Bakoitzaren gaitasunaren arabera ere, askok ez dute irakurtzen ez dutelako ulertzen, informazioa ez dute jasotzen ez dutelako irakurtzen, informazio falta horren ondorioz mundua ez dut ulertzen, haserretu egiten dira, eta bola gero eta handiagoa egiten joaten da.

Egia da ere, gero eta gaitasun handiagoekin ateratzen direla eskolatik ikasleak eta beraz, eguneroko bizitzarako gero eta prestatuago. Nire lehenengo ikasleak izan zirenak, askoz prestatuago daude, baina beraiek baino 20 urte zaharragoak diren gorrekin konparatuz gero, alde handia nabaritzen da. Lehen askoz galduagoak zeuden, ez zuten ezer ulertzen, ez dakizkitez egunerokotasuneko gestioak egiten.

Telefonoak adibidez, mundu bat zabaldu die komunikazioa bertan dute. Gehiago edo gutxiago ulertu, baina badakitez irakurtzen. Lehen ez zegoen guzti hori, lehen beti beste pertsona batekiko dependentzia zuten. Adibidez, norbaitekin gelditzeko gurasoei edo anai-arrebei deitzeko esanez, azkenekoz egon zinenean geldituz edo kalera atera eta ea norbaitekin topatzen zinen ikusi.

Gero eta hobeto moldatzen dira gizartean eta gero eta prestatuago daude, baina oraindik ere informazio falta handia da.

Beraien egunerokotasunean, zein baliabide edo laguntza dituzte?

Adibidez, etxean ate gainetan kolore desberdinetako argiak dituzte, beheko ateko txirrina, goiko ateko txirrina edo telefonoa jotzen ari den jakiteko. Orain, mugikorrean ere badago aukera txirrinen abisua zuzenean bertan agertzeko. Esnatzeko aukera desberdinak daude, iratzargailua argiarekin ohearen alboan, burukoaren azpian mobila bibrazioarekin, erlojua bibrazioarekin... Azkenean, teknologia berriak beraientzat laguntza handia izan da.

Askotan, familia gorretan seme-alaben bat entzulea izaten da, hau da, CODA. Gehienetan, haur entzule horrek gurasoen edota familiaren karga hartzen du. Itzultzaile lanak, telefonoz deitu behar bada, etab.

Eta hezkuntzan? Hurrek baliabide espezifikorik dute? Laguntza materialik, pertsonalik, akademikorik?

Legearen arabera PTak Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan egon daitezke, lanbide heziketan eta batxillergoan PTrik ezin da egon. Interpreteak bakarrik batxillergoan, lanbide heziketan eta Helduen Hezkuntzan, hau da, derrigorrezko hezkuntzaren ondoko hezkuntzan. Logopedak Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 1 eta 2. mailatan. Hala ere, gero beti daude salbuespenak.

Giza baliabidetaz aparte, FMak edukitzen dituzte, aparatu honekin irakaslearen ahotsa zuzenean jasotzen du haurrak bere audifono edo inplantetan eta gelako oihartzunak eta bestelako zaratak garbitzen dira. Hauek Lehen Hezkuntzatik aurrera jartzen dira.

Batzuetan, bukle magnetikoa gela batzuetan jartzen da (liburutegia, jantokia, aretoetan...), honekin ere soinua garbitzen da eta inguruko zaratak kendu. Bukleak normalean erabiltzen dira ikasle asko batera daudenean. Zinemetan, merkataritza-gunetan, unibertsitateko aretoetan, etab. ere egoten da, hau da, jende asko elkartzen den eta soinua asko dagoen lekuetan.

Testu-liburuak, fitxak edo azterketeak ez daude zeinu-hizkuntzaz, ikasle gorrari liburua ematen diote eta hauek ez dituzte ulertzen, beraz guk moldatu egiten ditugu testua sinplifikatuz, irudiak txertatuz edota zuzenean testua zeinu-hizkuntzara itzultzen dugu bideo bidez. Materiala egokitzea eguneroko lana izaten da.

Azterketak adibidez, ikaslearen arabera, batzuei ez zaizkie moldaketak egiten, beste batzuei galderak sinpletu egiten dizkiegu, edota ikasleak idazten ez badaki zeinu-hizkuntzaz azaltzen du eta bideo formatuan erantzuten ditu galderak. Betiere, lantzen ari diren gaiaren zein ikaslearen arabera.

Gelan bideoak jartzen dituztenean, irakaslek azpтитuloak jartzen dituzte, baina askotan haurrak ez du irakurtzen hizkuntza hori, edo oso modu konplexuan idatzita daude, eta beraz ni jartzen naiz pantailaren ondoan eta bideoa interpretatzeko.

Irakasle batzuk asko inplikatzeko dira, gelako ariketa guztiak moldatzen ditu, baina beste irakasle batzuk ez dira hainbeste saiatzen eta gehiago pasatzen dute.

Eta familia/guraso gorren laguntzarik dute?

Hezkuntzatik ez zaizkie laguntzak eskaintzen, beraiek bestelako elkarteekin harremanetan jartzen dira eta bertatik jasotzen dituzte laguntzak. Haurrak oso txikiak direnean, klasean lantzen dena gurasoei bidaltzen zaie etxean gauza bera lantzeko.

Gurasoa gorra bada, nik zeinu-hizkuntzaz egiten dut berarekin, batzuetan interpreteak eskatu ditugu bileretarako eta batzuetan ere bileretan sartu naiz interprete lanak egiteko. Egoeraren arabera moldatzen zara, interpretea kanpotik ekartzen da edota guk geuk egiten dugu.

Zer uste duzu behar dutela pertsona gorrek guztiz gizartean inkluituak sentitzeko?

Informazioa behar dute, zeinutan egiten duten gorrek behar dute zeinutan egin ahal izateko aukera edonon eta informazioa zeinutan jaso ahal izateko aukera. Eta zeinutan egiten ez dutenek informazio horretara heltzeko modua behar dute, ahotz, idatziz, mantsuago, edo dena delakoa.

Baina, azkenean gortasuna faena bat da, ez baita ikusten. Zuk itsu bat ikusten duzu kaletik eta segituan konturatzen zara eta kontuz ibiltzen zara berarekin estropuz ez egiteko. Aldiz, gor batekin gurutzatzen zara eta ez duzu identifikatzen, gizarteak orokorrean ez du ezagutzen zer den gor bat. Niri askotan esaten didate idatziz komunikatu ahal naizela berarekin, baina ez dira konturatzen agian nire ikasleak ez dakiela idazten eta irakurtzen ere. Ez jakintasuna oso handia da.

zeinu-hizkuntzaren inguruan ere dagoen ez jakintasuna ikaragarria da, jendeak uste du letraz letra hitz egiten dela alfabeto daktitologikoaren bidez, baina ez, ez da horrela, zeinu-hizkuntza hizkuntza bat da, eta zeinu-hizkuntzak egitura, gramatika eta lexiko propioa du. Nik adibidez, ezin dut aldi berean zeinu-hizkuntzaz eta euskaraz hitz egin, nahiz eta egitura aldetik nahiko antzekoak izan, ez dira berdinak, hitzen ordena ez da bera.

Hezkuntzak zer egin dezake edo nola lagundu dezake helburu horretan?

Informazioa jaso ahal izateko irakurtzen eta idazten jakin behar dute, beraz, eskolan ikasi behar dute hortan.

Gero eta hobeto ateratzen dira eskolatik, nire lehenengo mezuak mugikorraren bidez pertsona gorrekin orain dela 20 bat urte, ulertzeko oso zailak ziren, atzerritarrak zirela ematen zuen. Gaur egun aldiz, idatziz ez duzu zertan nabaritzen pertsona bat gorra denik, gorrek gero eta hobeto idazten zein irakurtzen dute.

Taldekatze ikastetxeetan gu gaude, baina bestelako ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako tutoreek ez dute herramienta egokirik gorrei erakusteko, eta beraz entzuleek aukera gehiago dituzte ikasteko. Hala ere, delegaritzakoek ez digute lana errazten, ez dituzte baliabideak eskaintzen, eta beraz ikasle guztiak ez dira ateratzen guztiz prest gizarterako, batez ere zailtasunak dituztenak.

7. eranskina: Ainoa Abaituaren elkarrizketaren transkripzioa

Kaixo, hasteko zure burua aurkeztu dezakezu?

Ainhoa Abaitua naiz, logopeda, beti egon naiz lanean eusko jaurlaritzarako eskoletara eta badaramat 25 bat urte lanean. Hasieran hasi nintzen kasu desberdinekin, generalista esaten dena, eta gero gorrekin bakarrik.

Pertsona gorrekin lan egiten duzu, zer nabarmenduko zenuke?

Etortzen zaidan lehenengo gauza da gortasuna ez garela ohartzen zer nolako zailtasunak dakartzan. Izan ere, esaten dizutenean norbait itsua dela, berehala ohartzen gara eta pixka bat bere egoeran jartzen gara. Baina gortasuna ez da ikusten, ez gara ohartzen zer nolako zailtasunak izan ditzaketen. Haur gor inplantatu askoz gehiago gertatzen da hau, eskoletan berehala irakasleek pentsatzen dute primeran entzuten dutela etab. Nik uste dut deigarriena hori dela, ez garela ohartzen zer nolako zailtasun dituen pertsona gor batek.

Zu beraiekin nola komunikatzen zara?

Bakoitza mundu bat da, kasu bakoitzaren arabera, familia zein haur gor batzuk ez dute zeinu-hizkuntzaren alde egiten eta orduan erreabilitazioa ahoz egiten da. zeinu-hizkuntza erabiltzen duten hurrekin aldiz, sostengu bezala erabiltzen dut. Orain, behar hori oso argi daukagu eta horregatik sartu dira hezkuntzan komunikazio bitartekariak, eta beraiek lantzen

dute zeinu-hizkuntza. Berak interprete baten lana egiten du, eta ziurtatzen du informazioa umearengana heltzen dela.

Pertsona gorrak izateak hainbat arazo/oztopo izatea dakar?

Nik uste dut askotan harremantzeko arazoak dituztela. Agian txikitxuak direnean ez da hainbeste igertzen, baina nerabezaroan zailtasun gehiago dituztela. Nik ikusi dudanagatik, txikiek akademikoki zein sozialki oso ondo egiten dute aurrera, baina gero, nerabezaroan harremanen aldetik arazo handiak ikusi ditut. Audifonoa dituzten edo hipoakustikoak direnek ez da hainbeste igertzen.

Baina, gainontzekoak lagunekin ateratzen direnean, tabernatan askotan ez da argi asko egoten eta zarata handia dago, ondorioz, elkarrizketak ez dituzte ulertzen, besteak ere ez daude prest beraien beharretara moldatzeko eta errepikatzen ibiltzeko. Uste dut nerabezaroan oso garai zaila bizitzen dutela. Askotan ez da lantzen eta beraientzat oso garrantzitsua da gorraren identitatea. Gorrek asko defendatzen dute hori eta egia da oso inportantea dela. Adibidez inplantatuekin askotan gertatzen da, ez daudela ez entzuleen munduan ez gorren munduan.

Horregatik zeinu-hizkuntza zein identitatea lantzea lantzea oso garrantzitsua da identitate hori indartzeko. Ere egia da, entzuleok hainbat gauza ikasten ditugula zeharka, une oro entzuten eta informazioa gureganatzen gaudelako, baina gogorren kasuan dena azaldu behar zaie. Azkenean lengoaiak giro asko ditu, ironiak harrapatzea oso zaila da gor sakontzat, eta hori harremanetan igertu egiten da.

Zein beste baliabide dituzte umeek eskolan? Baliabide ekonomikoak, pertsonalak, materialak...?

Logopedia, komunikazio bitartekaria, gero lehen hezkuntzan FMak eta irakasleekin kurtsu hasieran sentsibilizazio hitzaldi bat egiten da. Orain uste dut beste kontzientzia bat dagoela irakasleen artean eta batzuk zein hizkuntza ikasten dute.

Materialari dagokionez, hura moldatzea askotan logopedok egiten dugun lana da. Lehen Hezkuntzan zein DBHn, testuak oso luzeak eta hiztegi konplexuarekin direnean, haur gorrek behar hori dute. Honez gain, zailtasun handiak ikusten ditugunean curriculumerako sarbide egokitzapenak egiten dira hizkuntzetan. Bestalde, DBH 3 eta 4. mailatan logopedak ez gara sartzen eta berritzegunetik bestelako laguntzazko irakasleak eta interpreteak izaten dituzte.

Familientzat laguntzak?

Ez, familiei aspasorrek eskaintzen dizkie laguntzak. Bileretan adibidez, gurasoak gorrak badira eskolak interpretea jartzen du. Lehen orain dela urte batzuk, familiak jartzen zuen interpretea, aldiz, konturatu ginen hori eskolak erraztu behar duela, baizik eta ez da soilik familiaren beharra, baizik eta bi aldeek behar dute laguntza hori bilera egin ahal izateko. Hala ere, hau nire esperientzia da, izan ere, taldekatze-eskoletan laguntza gehiago eskaintzen dituzte.

Beraien egunerokotasunean zein laguntza edo baliabide dituzte?

Haur Hezkuntzako etapa osoan logopedia zerbitzua dute eskolaz kanpo, arreta goiztiarra. Lehen Hezkuntzan aldiz, nahi izanez gero beraiek ordaindu behar duten zerbitzua da, baina normalean aspasorrek bestelako laguntza eskaintzen dizkie ere.

Beraien egunerokotasuneko oztopoak?

Edozein antzerkian, zinean, etab. oztopo handiak edukitzen dituzte, eta jendea ez da hortaz konturatzen. Maskarilak pertsona gorrentzat oztopo handia izan da, gainera elkar ulertu ahal izateko jeisten badute atentzioa deitzea.

Zer uste duzu behar dutela pertsona gorrek guztiz gizartean inkluituak sentitzeko?

Mundu guztiak zeinu-hizkuntza jakitea, izan ere, honek esango luke alde batetik komunikazio erraza izango zela eta bestetik denak beraien tokian jarriko liratekela, beraiekiko enpatia edukiko luketela.

Hezkuntzak zer egin dezake edo nola lagundu dezake horretan?

Bai, nik uste dut jada egiten ari dela, lanean hasi nintzenean zegoen egoera gaur egungoarekin alderatuz desberdintasun handia dago. Irakaslegoak bestelako kontzientzia bat du eta eusko jaurlaritzatik ere ikastaro gehiago eskaintzen dira.

DBHn kasuaren arabera interpretea eskaintzen zaio ikasleari, baina Haur zein Lehen Hezkuntzan ez, eta nire ustez, etapa horietan ere interpreteak egon beharko lirateke gelen barruan, baina hori oraindik ez dago onartua.

8. eranskina: Ainhoa Ruiz de Anguloren elkarrizketaren transkripzioa

Egun on Ainhoa, para empezar, ¿podrías presentarte?

Me llamo Ainhoa Ruiz de Angulo, tengo 33 años, soy sorda profunda y soy de Gasteiz. Estudié trabajo social, en la UPV de Vitoria, aunque ahora soy autónoma y tengo una academia de lengua de signos (Zeinu Kaxa).

¿Cuál es tu lengua materna? ¿Qué otros idiomas sabes?

Mis lenguas maternas son lengua de signos y castellano, los dos idiomas los he adquirido a la vez. Pero también sé un poco de inglés y euskera.

¿Has sufrido algún obstáculo por ser sorda?

Sin ninguna duda, sí. Por ejemplo, en el hospital o en el centro de salud, muchas veces el médico llama al paciente desde dentro de la consulta, entonces yo desde la sala de espera no sé cuándo tengo que entrar. A veces se olvidan que somos sordxs y por eso primero siempre tengo que avisar que soy sorda, para que vengan a por mi a la sala de espera.

También en la estación de tren o de autobús o en los aeropuertos, muchas veces dan avisos por megafonía, por ejemplo, cuánto falta para que llegue el tren, si el autobús llega tarde, cuánto falta para que el avión despegue, etc. De esos avisos yo no me entero.

En las actividades de ocio también hay muchos obstáculos. Por ejemplo en el cine o teatro. En el cine a veces hay subtítulos, pero los subtítulos son blancos esto quiere decir que están dirigidos a personas que están aprendiendo el idioma de la película. Es decir no están adaptados para las personas sordas, no está especificado quién habla mediante diferentes colores, los ruidos o avisos no aparecen una esquina entre paréntesis, etc. Además, no soy libre de ir al cine cuando quiera y a donde quiera, ya que en Vitoria el único cine donde hay subtítulos es en el del boulevard y sólo los martes. El horario es muy malo, yo quiero ir al cine cualquier los fines de semana o cualquier otro día de la semana, al igual que lo pueden hacer las personas oyentes.

Respecto al teatro, hace poco por primera vez ví un teatro con una intérprete genial y una perfecta accesibilidad, la primera vez en 33 años. Deben de hacer más teatros accesibles, pero no es algo común en el día a día.

¿Alguna vez te has sentido discriminada?

Sí, por ejemplo en grupos de conversaciones cortas puedo entender pero cuando empiezan a hablar muchas personas me pierdo y me quedo aparte en la conversación. En estos casos prefiero no decir nada porque me da pereza, por si no me entienden, para no molestar, por vergüenza, etc. A veces preguntamos al de al lado a ver qué ha dicho la persona que ha hablado y la respuesta suele ser que luego me lo explican, suele pasar que luego se olvidan de explicármelo o que me lo explican muy brevemente y yo ahí pierdo mucha información. También hay veces que las personas oyentes se cansan y la respuesta es que no les apetece hablar en LS, y en esos casos yo me siento discriminada. Al final la sociedad piensa que las personas sordas somos bordes pero la realidad es que las personas oyentes pasan de nosotras, que se molestan porque nos tienen que explicar y que no tienen paciencia.

¿Cómo fue tu experiencia en la escuela?

Sí, aunque en mi época era muy diferente ya que había muy pocos recursos y adaptaciones para las personas con sordera y poco a poco esto ha ido evolucionando. En aquella época los implantes ya habían empezado y mi familia tenía dudas sobre ponerme implante o audífono. Usé audífonos pero durante muy poco tiempo, no me servían, yo para entender correctamente lo que necesito es lengua de signos o lectura labial.

Aunque por suerte, tuve una muy buena suerte con las profesoras del colegio y se preocupaban día a día por mi, me ayudaban y me ofrecían recursos adaptados. Hacía reuniones con mis padres para saber qué tal y para poder seguir avanzando. Por ejemplo, en primaria tuvimos una charla sobre sexualidad y en aquella época no había intérpretes en la educación, entonces la profesora se sentó al lado mío e iba transcribiendo todo en el ordenador mientras que yo lo iba leyendo; si yo quería intervenir, hablaba o escribía en el ordenador lo que quería decir y la profesora hacía de mediadora.

Respecto a mis compañeros, nunca me he sentido discriminada por ser sorda. Creo que es porque en el barrio todxs somos vecinxs y amigxs y al colegio íbamos juntxs también. No me tenían etiquetada como “la sorda”, sino que me trataban al igual que al resto, como

“Ainhoa”. Yo siempre estaba sentada en primera fila y lxs compañerxs se iban rotando y me iban ayudando con los apuntes, etc. con lo que me he sentido integrada. Por otro lado, en el instituto tuve intérprete y profesora de apoyo.

¿Cómo te comunicabas con tus compañerxs?

Desde la guardería hasta el instituto tuvimos el mismo grupo y creo que la comunicación se adaptó naturalmente, ya que mis compañerxs estaban acostumbrados a mi voz. Además algunxs compañerxs sabían un poco de lengua de signos y nos comunicábamos muy bien.

¿Qué recursos personales y materiales has tenido?

Yo he estudiado en el colegio público, el berritzegune ofrecía varios recursos como por ejemplo, logopedia, profesorxs de apoyo e intérpretes. Fuera del colegio también iba a aspasor, allí también me daban apoyo académico o de logopedia. Una tía mía oyente y mi abuela venían todos los días a mi casa a ayudarme con los deberes o a practicar el habla oral, en casa trabajaba el doble. Los materiales didácticos no estaban adaptados.

En primero y segundo de la ESO, me sacaban de clase en euskera y en inglés porque creían que por ser sorda me iba a costar mucho aprender otras lenguas. Me metían en una clase con personas que padecían enfermedades mentales, yo en esa clase me aburría mucho y sentía que estaba perdiendo el tiempo. Yo no sabía qué hacer y pensaba que así tenía que ser, pero menos mal que en tercero de la ESO desde el berritzegune se dieron cuenta que yo no tenía que estar en aquella clase y que podía llevar el mismo nivel que mis compañerxs. En clase me pusieron una profesora de apoyo que sabía LS y en un año me enseñó euskera e inglés de primaria, primero, segundo y tercero de la ESO. Los exámenes no me los adaptaban y yo los iba aprobando.

Has echado algún recurso de menos o has necesitado algo que no te dieron?

Es verdad, que por ejemplo en primaria a mi me hubiese gustado tener una profesora que supiese LS dentro del aula. Al principio no se daban cuenta, pensaban que la LS no era importante, no sabían qué era lo mejor para el niño sordo. Además Álava, Vizcaya y Guipúzcoa funcionan diferente y tienen un sistema educativo para personas sordas. Por ejemplo en Arasgui se encarga de esto, y a amigxs míos les han recomendado repetir curso por ser sordxs.

Yo nunca he repetido, aunque en bachiller me ofrecieron la posibilidad de hacerlo en cuatro años en lugar de en dos. Yo acepté porque quería aprender bien tanto euskera como inglés, y de esta forma el primer y tercer año hice euskera y el segundo y cuarto inglés. Pero nunca he tenido los exámenes adaptados, y selectividad también la hice sin adaptaciones igual que el resto.

Para terminar, ¿qué necesitáis las personas sordas para estar totalmente incluidas en la sociedad?

Ojalá que la lengua de signos estuviese incluida como asignatura en todos los niveles de la educación. De esta manera las personas sordas, estarían incluidas con las oyentes.

También creo que lxs sordxs deberíamos protestar más porque si no lo hacemos nos excluyen y nos quedamos aparte, y si nos escondemos más, la sociedad no nos va a ver. La sociedad cree que la sordera no es una discapacidad, porque es una discapacidad que no se ve a simple vista. Por ejemplo, si vemos que hay un teatro o un curso sin intérprete deberíamos de exigirlo, y participar para que lxs oyentxs se den cuenta de que existimos y así normalizar la situación.

9. eranskina: Elkarrizketen ideien antolaketa taula

	Lourdes (irakaslea)	Mireya (PT)	Ainoa (logopeda)	Ainhoa (heldu gorra)
Oztopoak orokorrean	<ul style="list-style-type: none"> - (1) Ikusezintasuna. - Familiaren kolapsoa. - Gizartearen ezjakintasuna eta aurreideiak. 	<ul style="list-style-type: none"> - (1) Ikusezintasuna. - (2) Informazioa eskuratzeko zailtasuna eta informazio eza. - Gizartearen ezjakintasuna (alfabeto daktitologikoa komunikatzeko bide, ikasleekin komunikatzeko irtenbidea idazketaren bidez). 	<ul style="list-style-type: none"> - (1) Ikusezintasuna. - (2) Informazioa eskuratzeko zailtasuna (entzuleok nahigabe zeharka entzuten ikasten dugu, gorrei dena zehazki azaldu behar zaie). - (3) Harremantzeko zailtasunak (txikitan ez, baina nerabegarotik aurrera bai; ironiak ulertzeko zailtasunak). 	<ul style="list-style-type: none"> - (3) Entzuleekin ditudan elkarrizketetan galdu egiten naiz eta ez didate kasurik egiten edo oso labur azaltzen didate elkarrizketa, ondorioz, (2) informazioa galtzen dut. - (3) Gizarteak pertsona hotzatzat etiketatzen gaitu, baina entzuleak dira pazientziarik ez dutenak.
Oztopoak kalean	<ul style="list-style-type: none"> - (4) Megafonia (zineman, metroan). 	<ul style="list-style-type: none"> - Lehen lagunekin gelditzeko: guraso edo anai-arreba entzuleen laguntzaren beharra; kalera atera eta norbaitekin aurkitu; azkenekoz irten zinenean gelditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - (5) Aisialdia: zineman, antzerkietan. - Musukoak (gainera, jaisten badute errieta jasotzen dute). - Tabernatan ez dago argi nahikorik komunikatzeko ez eta zarata handia egoten da ((3)entzuleak ez daude prest moldatzeko eta esandakoa errepikatzen egoteko). 	<ul style="list-style-type: none"> - (4) Megafonia (metroan, geltokietan, aireportuan). - (5) Aisialdia: zinemaren azpigituluak ez daude gorrentzat moldatuak eta ordutegi txarra dituzte sesioak; antzerkia ez da irisgarria (33 urterekin lehenengo antzerki irisgarria ikusi dut). - Osasun zentroan: medikua kontsultatik ez da ateratzen pazientea deitzeko (gorra naizela ahaztu egiten dute). - Tailerretan, hitzaldietan, etab. ez daude interpreteak, behar izanez gero zeuk eskatu behar duzu.

Oztopoak hezkuntzan	<ul style="list-style-type: none"> - Haur gorrengan ez sinistea. - Haien nahiak edota gaitasunak limitatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazioa: ez dago kideekin benetako komunikaziorik. - Isolazioa - (6) Denborarik ez zeinu-hizkuntza erakusteko klase ordutan. - (7) Irakurketa eta idazketa. - (8) Besteek baina lan eta esfortzu gehiago egin beharra. - Irakasleek ez dute herramienta egokirik gorrei erakusteko. - (9) Testu liburuak moldatu gabe eskaini (PTok moldatzen ditugu). 	<ul style="list-style-type: none"> - (10) HHn eta LHn interprete falta. 	<ul style="list-style-type: none"> - (7) Euskara eta ingeleseko klasetan gela egonkorrean (DBH 3. mailan konturatu ziren gaitasunak nituela eta ohiko klasean sartu zidaten). - Gela barruan zeinu-hizkuntza zekien irakasle baten falta sumatu nuen.
Baliabideak kalean	<ul style="list-style-type: none"> - Telebistan kongresuetan dagoen leihotxo interpretarekin. - (10) Interpreteak bizitza pertsonalean: medikuarentzat, abokatuarentzat (garestiak izaten dira). 	<ul style="list-style-type: none"> - Telefonoa, etxeko tinbrea argiekin jarrita; mobilean iratzargailua argiarekin edo bibrazioarekin. - Bukle magnetikoa (zinean, merkataritza gunetan, uniko aretoetan...). 	<ul style="list-style-type: none"> - Arreta goiztiarra HHn: (10) logopedia eskolaz kanpo; LHn nahi badute beraiek ordaindu beharra - (11) ASPASOR elkartea 	<ul style="list-style-type: none"> - Inplanteak, audifonoak (niri ez zidaten balio) - (8) Nire izeba eta amona entzuleak, egunero etortzen ziren nire etxera ahozko hizketa praktikatzera eta etxeko lanak egitera - (11) ASPASOR elkartea (logopedia, laguntza akademikoa)
Baliabideak hezkuntzan	<ul style="list-style-type: none"> - (9) Material didaktikoa egokitzea. - (10) Irakaslearen gertutasuna, ALE, 	<ul style="list-style-type: none"> - (9) Material didaktikoa egokitzea (testu liburuak, fitxak, azterketak) PTok moldatzen ditugu: irudiak edo bideoak txartatuz, esaldiak sinpletuz, 	<ul style="list-style-type: none"> - (9) Materialak moldatu (logopedok egiten dugu). - Curriculumerako sarbide egokitzapenak hizkuntzetan. 	<ul style="list-style-type: none"> - (9) Irakasleak moldatu egiten ziren, lagundu egiten zidaten. Adb.: hitzaldi batean, irakasleak ordenagailuan dena idatzi eta nik bertatik irakurri.

	<p>PT (LH).</p> <ul style="list-style-type: none"> - (10) Interpretreak (DBH). - Arreta goiztiarreko tresnak. - (12) Frekuentzia Modulatua (FM). 	<p>zeinu-hizkuntzara itzuliz...</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bukle magnetikoa (liburutegian, jangelan edo aretoetan). - (10) PTak (HH eta LH). - (10) Logopedak (HH, LH eta DBH 1 eta 2). - (10) Interpretreak (batxillergoa, lanbide heziketa eta helduen hezkuntza). - (12) Frekuentzia Modulatua (FM). 	<ul style="list-style-type: none"> - (10) Logopedia (HH eta LH). - (10) Komunikazio bitartekaria (HH eta LH) (figura berria da). - (10) Interpretreak (DBHko kasu batzuetan eta hortik aurrerako formakuntzetan). - Irakasleekin kurtso hasieran sentsibilizazio hitzaldia. - (12) Frekuentzia Modulatua (FM). 	<ul style="list-style-type: none"> - (9) Azterketak ez zizkidaten moldatzen. - Batxillerra 4 urtetan egiteko aukera. - (10) Interpretreak eta zeinu-hizkuntza zekien laguntza irakaslea (DBH eta batxillergoan). - (10) Logopedia, PT, interpretreak (berritzeguneko laguntza). - (12) Ni beti lehenengo ilaran eta nire kideak nire ondoan txandakatzen ziren laguntzeko.
Familiantzat laguntzak	<ul style="list-style-type: none"> - (11) Elkarreak. - Gertuko laguntza. 	<ul style="list-style-type: none"> - (11) Elkarreak. - (13) Bileretan interpretreak (kanpotik ekarrita edo eskolako irakasleak itzultzaile lanak). - Haurrak txikiak direnean, eskola-familia arteko koordinazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> - (11) Elkarreak. - (13) Bileretan interpretreak (orain eskolak jartzen du, lehen familiak eramaten zuen). 	<ul style="list-style-type: none"> - (11) Elkarreak.
Oharrak		<ul style="list-style-type: none"> - (3) Nerabazarotik aurrera gorren artean elkartzen dira (zeinu-hizkuntza erabiltzen dutenak bereziki). 	<ul style="list-style-type: none"> - Gor identitatea garatzearen garrantzia (inplantatuek askotan sentitzen dute ez daudela ez gorren munduan ez entzuleen munduan). 	<ul style="list-style-type: none"> - (6) Zeinu-hizkuntza irakasgai gisa adin guztietan.



ANTZERKI FOROA
TEATRO FORO

Gaia: KOMUNITATE GORRA
Tema: COMUNIDAD SORDA

Noiz? EKAINAK 1, 16:30 TAN
¿Cuándo? 1 de JUNIO, A LAS 16:30

Nun? ZERKABARREN KALEA,
¿Dónde? CALLE CERCAS BAJAS,

ANIMATU!! →  Bertaratzea konfirmatu
Confirmación de asistencia
60

11. eranskina: Antzezlanaren gidioa

Elkarrizketen hizkuntza:

- Gaztelaniaz edo euskaraz
- *zeinu-hizkuntzaz letra etzanaz*

Azpirarratutakoa: eszenatokiaren antolamendua

PERTSONAIAK:

1. MARIA: Ama, gorra, zeinu-hizkuntza da bere ama-hizkuntza, ez du inplanterik ez audifonorik. 38 urte, ama bakarra, haurdun dago baina berak ez daki.
2. ANE: Mariaren alaba zaharra, gorra, zeinu-hizkuntza da bere ama-hizkuntza, ez du inplanterik. 14 urte, DBH 3ra dijoa. Bere interpreteak baja hartzen du.
3. LORE: Mariaren alaba gaztea, gorra, zeinu-hizkuntza da bere ama-hizkuntza, inplantea du. 10 urte, LH 5. mailara dijoa. Ez du interpreterik ez bestelako laguntzarik gelan
4. MARISA: Mariaren ama, entzulea
5. LOREREN IRAKASLEA: Entzulea
6. LOREREN IKASKIDEA: Entzulea
7. ANEREN IRAKASLEA: Entzulea
8. ZUZENDARIA: Entzulea, zeinu-hizkuntzaz pixka bat daki, baina ez asko.
9. ANEREN INTERPRETEA: besoa puskatzen du eta baja hartu behar du.
10. MEDIKUA: Entzulea
11. KALETARRA: Entzulea

1. AGERRALDIA: MARIA ITXARON GELAN + KONTSULTA

Eszenatokia bitan banatua: ezkerrean kontsulta eta eskubialdean itxaron gela.

Marian osasun zentroko itxaron gelan dago, medikuak kontsulta barrutik deitzen du lau aldiz, baina Maria gorra denez ez du entzuten eta ez daki bere txanda iritsi den hala ez. Maria kontsultaren atera gerturatu eta atearen zirrikitutik begiratzen saiatzen da, ez du ezer ikusten eta berriz esertzen da.

Medikuak haserre atea zabaltzen du eta itxaron gelara hurbiltzen da.

MEDIKUA: Kaixo, Maria?

Maria eserlekitik jaikitzen da, medikuak gaixki begiratzeko du eta kontsultan sartzen dira.

Kontsultan sartu, eseri eta medikuak Mariari analisi bat egiten dio.

<p>2. AGERRALDIA: FAMILIA EGONGELAN + AMAK BERE GURASOekin BIDEODEIA</p>

Eszenatokia bitan banatua: ezker aldean Mariaren ama eta eskubialdean familia egongelan.

Gaua da, Maria eta bere bi alabak (Ane eta Lore) etxeko sofara daude telebista ikusten. Igandea da eta hurrengo egunean eskola dute. Lorek du telebistako mandoa eta pelikula bat ari da ikusten. Ane mobilarekin dago.

Lorek bere amarekin hasten da hizketan.

LORE: *Cine tocar querer.*

MARIA: *Pero... no podemos.*

LORE: *¿Por?*

MARIA: *Porque cine subtítulos con martes+++ solo.*

LORE: *Joo, pero quiero. Además yo leer no sé, subtítulos da igual.*

Anek gaizki begiratzeko du Lore, berak subtituluarekin ikusten dituelako bideoak.

MARIA: *Tú miércoles colegio tener, martes cine no podemos ir.*

Mariaren telefonoak jotzen du, bere amak deika dabil.

AMA: *¡Hola! ¿Qué tal?*

GURASOA: *¡Hola! Bien, ¿tú?*

AMA: *Yo mejor pero tripa rara, dolor de cabeza también*

GURASOA: *Médico pronto resultados mandar, tranquila*

AMA: *Sí... preocupación no...*

GURASOA: *Un beso, yo dormir ya.*

AMA: *Buenas noches, besos*

ANE eta LORE: *Agur!!! Besos!!!*

GURASOA: *Buenas noches*

Ama eta Ane telebista ikusten hasten dira ere.

ANE: *Lore! Subtítulos faltan, por favor*

MARIA: *Cierto*

LOREk ez du kasurik egiten

ANE: (Eskuarekin bultzatzen du) *Subtítulos*

ANE: (Ama ukitzen du) *Subtítulos. Lore pasa de mi.*

AMAK telebistako mandoa hartzen du eta subtítuluak jartzen ditu.

ANE: *Gracias* (amari). (Gero Lorerik begiratu eta aurpegiarekin burla bat egiten dio, Lorek bueltatu egiten dio besoarekin bultzatuz)

<p>3. AGERRALDIA: MEDIKUAK MARIA DEITZEN DU, BAINA EZ DU TELEFONOA HARTZEN</p>

Eszenatokia bitan banatua: ezker aldean medikua eta Maria egongelan.

Maria etxean dago irakurtzen, medikuak deitu egiten du, baina honek ez du telefonoa entzuten.

Medikuak moztu eta berriz deitzen du Maria, bi aldiz jarraian.

<p>4. AGERRALDIA: LORE IKASGELAN GALDUA, INOREN LAGUNTZARIK GABE</p>

Lore ikasgelan, lehenengo filan eserita, hala ere, irakasleak musukoa darama. Eta beraz bera ez da ezertaz entzeratzen.

Irakaslea hitz egiten dagoen bitartean, Loreren kide batek eskua altxatzen du.

KIDEAK: Lorek ez du ulertzen (belarria eta Lore seinalatuz)

Irakasleak ez du kasurik egiten, eta musukoarekin hitz egiten jarraitzen du, bere arazoa izango ez balitz bezala.

5. AGERRALDIA: MEDIKUAK MARIA DEITZEN DU, BAINA EZ DU TELEFONOA HARTZEN

Eszenatokia bitan banatua: ezker aldean medikua eta eskubian Maria kaletik.

Maria bere alabak eskolatik hartzera bidean dago, mobilean mezu bat idazten duen bitartean. Mugikorra poltsa barruan gordetzen du.

Medikuak deitu egiten du, baina honek ez du telefonoa entzuten. Medikua moztu eta berriz deitzen du Maria, bi aldiz jarraian.

Kaletik giltzak erortzen zaizkio, ezezagun batek atzetik deitzen du, baina Mariak ez du kasurik egiten kaletarrak aurpegi txarra jartzen du eta Mariaregana hurbiltzen da korrika giltzak emateko. Mariak eskerrak ematen dizkio eta kaletarrak hau gorra dela ohartzen denean izoztu egiten da.

Maria eskolara iristen da eta patioan Lore du zain (eszenatokiaren eskubiko aldean).

6. AGERRALDIA: ANE ESKOLATIK ATERATZEN INTERPRETEAK BAJA HARTUTA + AMAK IRAKASLEAREKIN ELKARRIZKETA + AMAK ZUZENDARIAREKIN ELKARRIZKETA

Eszenarioa bitan banatua dago, lehenengo ezker aldean Aneren gela, eskubialdean Maria eta Lore patioan zain Aneren zain.

Maria Aneren gelan sartzen denean, eskubiko aldea ez da patioa izango, baizik eta zuzendariaren bulegoa (aulkiak sartu).

Maria zuzendariaren bulegoan sartzen denean, ezkerreko aldea izango da patioa, bertan egongo dira Ane eta Lore zain.

Ane gelatik kexaka ateratzen da, Maria eta Lore bere zain daudela.

ANE: *Hoy clase intérprete no hay*

AMA: *¿Por? (extrañeza)*

ANE: *Porque ella caerse brazo hueso romper. Creo baja*

AMA: *¿Cómo? Profesora avisarme no.*

ANE: *No sé*

AMA: *Pero tú colegio bien?*

ANE: (hombros arriba)

AMA: *Profesora con hablar, vosotras aquí esperar.*

Ama eskolan sartzen da, Aneren gelan sartzen da, bertan irakaslea dago musukoa jantzita.

AMA: *Hola*

IRAKASLEA: *Hola*

AMA: *Ane decirme ayer intérprete sin*

IRAKASLEA: *Aiii, si... se me había olvidado decirte, ha tenido que coger la baja porque se ha roto el brazo.*

AMA: *...*

IRAKASLEA: *HA TENIDO QUE COGER LA BAJA PORQUE SE HA ROTO EL BRAZO (oihuka)*

AMA: *Por favor, mascarilla bajar.*

IRAKASLEA: *Perdón, se me había olvidado decirte, ha tenido que coger la baja porque se ha roto el brazo.*

AMA: *¿Olvidar decirme? ¿Brazo romper baja?. (Bfff... haserre aurpegira).*

IRAKASLEA: *Pero tranquila porque Ane lee los labios (lee los labios).*

AMA: *Lectura labial? No, Ane intérprete necesitar. Interprete sin clase ritmo seguir no puede. Además, mascarilla con, lectura labial cómo???*

IRAKASLEA: *Pues intérprete no hay. Además igual podéis poner un implante coclear...*

AMA: *Implante, implante... no vale para nada. Intérprete!*

IRAKASLEA: *Pero si con implante oye!! (Burua eta belarria seinalatu irriz eta modu onean)*

AMA: *Bff...intérprete*

IRAKASLEA: *(buruarekin ezezkoa, pena aurpegiarekin)*

AMA: *Sustituta buscar*

IRAKASLEA: *No hay*

AMA: *Me voy*

Gelatik atera, zuzendariaren bulegoko atea jo eta sartu egiten da (eszenatokiaren eskubiko aldea).

AMA: *Hola, ¿qué tal?*

ZUZENDARIA: *Hola*

AMA: *Hablar tema intérpretes quiero*

ZUZENDARIA: Bffff (aurpegi txarra)

AMA: *Ane intérprete suya, baja, sustituta no hay*

ZUZENDARIA: *Paciencia...*

AMA: ... (harridura aurpegia)

ZUZENDARIA: *Profesora hablar ya, ¿sí/no?*

AMA: *Sí, pero solución no hay*

ZUZENDARIA: *Sustituta no hay, yo...* (ezezkoa buruarekin)

AMA: *Tú sustituta pedir debes* (haserre)

ZUZENDARIA: (Baiezkoa buruarekin)

AMA: *Tema otro, Lore intérprete todavía no*

ZUZENDARIA: *Lore pequeña*

AMA: *NO! Intérprete derecho suyo. Intérprete clase dentro juntxs necesitar*

ZUZENDARIA: No es su derecho. Hasta la ESO no hay intérpretes y Lore tendrá intérprete en la ESO, ahora no (Hau ez daki nola komunikatu amari, beraz paper batean idazten dio esaldia)

Amak papera irakurtzen duen bitartean zeinu-hizkuntzara itzultzen du haserre aurpegiarekin.

AMA: *“Derecho suyo no. ESO intérprete hay, ahora no, muy pequeña”* (Haserre) *Vergonzoso. Yo escribir perezosa. Tú Lengua de signos aprender!*

Bulegotik ateratzen da eta patioan bere Lorekin elkartzen da.

AMA: *Ane?*

LORE: *Baño ir*

AMA: *De acuerdo*

Momentu hartan, interpretea patiotik pasatzen da.

AMA: *Ehh, ehh!*

INTERPRETEA: *Hola :)*

AMA: *¿Tú baja?*

INTERPRETEA: *Sí... brazo hueso romper*

AMA: *Pero tú baja no... Ane intérprete sin...*

INTERPRETEA: *Mi derecho*

AMA: *Pero tu signar mano una*

INTERPRETEA: *No... yo baja necesitar*

AMA: *Mira, ahora tú signar perfecto, mano una*

INTERPRETEA: (Ezezkoa buruarekin)

Ane komunetik bueltatzen da.

Jarraian, amak interpretearekin 1, 2, 3 bradford egiten du. Lau aldiz errepikatuko dituzte hiru muiimendu hauek: bestea begiratu, behera begiratu, bestea besarkatu.

AMA: Bestea begiratu

INTERPRETEA: Behera begiratu

AMA: Bestea besarkatu

INTERPRETEA: Bestea begiratu

AMA: Behera begiratu

INTERPRETEA: Bestea besarkatu

(...)

7. AGERRALDIA: MARISAK MEDIKUAREKIN DEIA

Eszenatokia bitan zatituta, ezkerraldean Marisa zutik eta eskubialdean medikua bere mahaian eserita.

Medikuak Maria deitzen du, baina beste behin ez dio telefonoa hartzen. Beraz, bere gurasoa deitzen du, elkarren artean telefonoz ari dira ahoz hitz egiten.

MEDIKUA: Buenas! Eres tú la madre de Maria?

MARISA: Sí soy yo pasa algo?

MEDIKUA: No... tranquila. He intentado contactar con tu hija pero no me coge el teléfono

MARISA: Ahh... eske es sorda. Bueno, yo le daré el mensaje, qué pasa?

MEDIKUA: Tengo el resultado de las pruebas de Maria

MARISA: ¿Y?

MEDIKUA: ¡Ha dado positivo! ¡Felicidades!! ¡María está embarazada! (Pozik)

MARISA: (Poztasun aurpegia)

8. AGERRALDIA: MARIK BERE AMAREKIN BIDEODEIA HAURDUN DAGOELA ESATEKO

Eszenatokia hiru zatitan banatuta. Alde batean Maria eta bere bi alabak egongelan eta beste aldean amona. Erdian eremu bat dago hutsik.

Maria, Ane eta Lore telebista ikusten daude, hirurak isilik eta serio aurpegiekin.

Mariaren amak deitu egiten du:

MARIA: *¡Hola! ¿Qué tal?*

GURASOA: *¡¡Muy bien!! Algo contarte debo*

MARIA: *Dime*

GURASOA: *Medico tuyo llamarme*

MARIA: (Extrañeza)

GURASOA: *Tú embarazada!!! Felicidades!!!!*

MARIA: *¿Qué?*

GURASOA: *Sí!!! Felicidades!!!*

Mariak telefonoa moztzen du shock aurpegiarekin, bere bi alabak zein ama izoztu egiten dira (mugitu gabe gelditzen dira). Bere bi alabak begiratzen ditu, bere sabela begiratzen du, bere sabela ukitzen du, sofatik altxatzen da, publikoa begiratzen du. Eszenatokiaren erdira joaten da, lurrean zirkunferentzia bat marrazten du tizarekin, Maria zirkunferentziaren erdian gelditzen da eta tiza bere eskutik erortzen uzten du.

Eskubira begiratzen du, Marisaren aktorea neutro gerturatzen da eta esku batekin Mariaren gorputza ukitzen du. Ezkerrera begiratzen du, Lore eta Aneren aktoreak neutro gerturatzen da eta esku batekin Mariaren gorputza ukitzen dute.

Mariaren inguruan bere alabak eta bere ama daudela, Mariak begiak ixten ditu eta bere gorputza alboetara erortzen uzten du, izan ere, zama gehiegi ari da jasaten eta bere gorputzak ez du hainbesteko pisua aguantatzen jada. Beraz, besteek heldu egiten dute, baina halako batean lurrera erortzen da. Gainontzeko aktoreak, publikoarekin esertzen dira, Maria guztiz bakarrik utziz. Maria zirkunferentziaren erdian etzanda dagoela, bere burua besarkatzen du.

12. eranskina: Antzerki Foroaren bideoen linkak

[Antzerki Foroa - Hasierako jarduera](#)

[Antzerki Foroa - Antzezlanak - Komunitate gorra](#)

[Antzerki Foroa - ikusleen interbentzioa - 5. agerraldia](#)